

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2026ko maiatzak 15 - 1396 zenbakia



## LEHEN HITZA EUSKARAZ

T. Etxebarria, 1  
943 20 42 99

Gehien  
maite  
duzuna  
babestu!  
%50eko  
DESKONTUA!

### BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:  
[eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

**EUKI**

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti  
barestuta egongo  
den **garantia**



**UNI  
EIBAR  
ERMUA**

# AURRE- MATRIKULA

 | **MAIATZAK 4tik 22ra**

---

**IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA**



**IZENA EMAN  
EDO DEITU**  
📞 943 89 92 11  
[www.uni.eus](http://www.uni.eus)

  
**MERKATARITZA**

  
**ADMINISTRAZIOA  
ETA  
KUDEAKETA**

  
**JARDUERA  
FISIKOAK  
ETA KIROLOAK**

  
**INFORMATIKA  
ETA  
KOMUNIKAZIOAK**

Otaola Hiribidea, 29  
20600 Eibar, Gipuzkoa  
943 89 92 11  
idazkaritza@uni.eus  
[www.uni.eus](http://www.uni.eus)  
@uni.eus  

## Aurrematrikula zabalik

# MAIATZAK 4 - MAIATZAK 22

## AUKERARIK ONENA, ETORKIZUNA DUENA




  
ArmeriaEskola\*

# Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTuben ikusgai



[www.etakitto.eu](http://www.etakitto.eu)



Eibartarrak Sarean atalean, Mikel Díaz de Guereñuk gazteiztarrak eta Mikel Azkargorta eibartarrak sortutako "Maikys" proiektua izango da protagonista. Wii Sports bideojokoan inspiratutako bideoekin ezagun egin ostean, 'Maikys Party' formatu berria abiatu dute: dado erraldoi baten laguntzaz Euskal Herrian barrena dabiltza minijokoak eta erronkak grabatzen.

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

#### ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

#### JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Iruñe Jaio

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



# Eskutitzak



## Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

# Hortik esanak



Untxia hiltzeko prozeduran, irudian ikus daiteke ez dela behar bezala egiten, animaliak muturreko sufrimendua duelako. Eta epaitzen den beste kasuan, teknikari batek hainbat arratoiari odola ateratzen dio begi-globoaren begi atzean. Teknika nahiko konplikatua da, eta, animalia sedatuta ez badago, lesioak eragiteaz gain, sufrimendu handia, min handia eta sufrimendu psikologikoa ere eragin ditzake. Argi dago praxi txarra ez ezik, erabateko utzikeria dagoela animalia horiekin, berdin dio sufritzen badute ere, azterketa garaiz izan behar baikenuen. Han barruan bizi izan nituen gauza asko ezin izan nituen dokumentatu eta ezin da imajinatu gizartearen noraino iristen diren.

**CARLOTA SAORSA, Vivotecnia laborategiko langile ohia**

Hausnarketa kolektibo handi bat dugu egiteko. Erruaren mekanismo desaktibatzaile bat dago: badirudi oporretara kanpora joan bazara desgaituta zaudela zure herriaren turistifikazioa borrokatzeko. Ez dut horretan sinesten. Nire ustez, benetan egoera honen errudunak hauek dira: turismoa etxebizitzarekin espekulatzeko erabiltzen dutenak, langileak esplotatzeko erabiltzen dutenak eta honekin diru asko irabazten ari direnak. Tarragonako kanpinera astebe-te joaten den nire bizilagunak erruaren parte minimo bat ukitu beharko luke. Baina, beste hainbat auzitan bezala, arduratsuak izan behar dugu. Beste opor eredu bat asmatu behar dugu denon artean.

**ASIER BASURTO, Bizilagunekin Plataformako kidea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**POTROSUA.** → Suerte handikoa. "Bizi guztia izan da ori potrosua".

**POTRUAK.** → Barrabilak. "Fooballian ziarduala baloiaekin potruetan jo dabe, eta laga ein biar izan detsa".

**POTXO EIÑ** → Jolasetan, kanika-edo zuloan sartu. "Iru bidar alegindu eta gero, azkenian potxo ein dau"



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 15</b>
EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)
<b>ZAPATUA 16</b>
EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)
<b>DOMEKA 17</b>
EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 18</b>
EGUNEZ   Elortza (Juan Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 19</b>
EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)
<b>EGUAZTENA 20</b>
EGUNEZ   Azkue (J. Etxeberria, 4)
<b>EGUENA 21</b>
EGUNEZ   Barandela (Ziriako Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 22</b>
EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 31)

**GAUEZ BETI**, 2026an,  
Elortza (Juan Gisasola, 18)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- Bitxorio Gandiaga Artetxe. 67 urte. 2026-05-07.
- Saturnina Maudó Fernandez. 96 urte. 2026-05-07.
- Agustina Jambriña Urones. 80 urte. 2026-05-08.
- Elena Begil Facundo. 100 urte. 2026-05-11.
- Julian Cardama Nuñez. 90 urte. 2026-05-12.



## Eibarko kalei arnas berritua eman nahi dion Triku Kulturgunea zabalduko dute gaur

**S.H.** Gaur zabalduko dute Triku Kulturgunea Calbeton kaleko 17. zenbakian (Txistu taberna izandakoan). Eguaztenean egin zuten proiektuaren aurkezpena Arrate Kultur Elkartearen, jende asko bildu zuen ekitaldian. Taberna gisa martxan ipiniko duten lokalak kultur ekitaldiak antolatzeko bokazioarekin ekingo dio bideari. Aurkezpenean esandakoari jarraituz, “Eibarko espazio euskaltzale, ezkertiar eta feminista berria” izango da, eta herrian

arlo horretan dagoen hutsunea betetzera dator. Azaldu zuten, “mimoz prestatu dugu elkargune berri hau, elkar ezagutu, topatu eta lagun artean gozatzeko helburuarekin. Eibarko kalei arnas berritua eman asmoz abiatzen dugu proiektua, ilusio handiz. Ostalaritza zerbitzua ematez gain euskarazko ekimen kulturalak bultzatzeko ditugu tabernan, giro herrikoi eta atsegin batean, zapore antifaxistarekin”. Herritar guztiak bertara gonbidatuta daude.

## Datorren astean agurtuko dute kurtsoa Esperientzia Eskolako ikasleek

**S.H.** Maiatzaren 22an, barixakuan amaituko dute ikasturtea Debarreneko Esperientzia Eskolako 21. promozioko ikasleek. Aurten Ermua, Elgoibar eta Eibarko 18 ikasle hartu dute parte Ikasten elkarteak antolatutako kurtsoan. Ikasturtearen amaiera-ekitaldia Portalean, areto nagusian egingo da, 11:30ean, eta bertan banatuko zaizkie diplomak ikasleei. 2025-26 ikasturtean zehar, klaserajoatez gain, proiektu soziala landu eta prestatu dute ikasleek, eta barixakuko ekitaldian aurkeztuko dute.



## Eibar Palestinarekin ekimenak deituta, kontzentrazioa egingo da gaur 19:30ean

**S.H.** Eibar Palestinarekin herri ekimenak antolatuta, gaur (barixakua, hilak 15) 'Global Sumud' flotillari babesa adierazteko kontzentrazioa egingo da, 19:30ean Untzaga plazan. Adalah giza eskubideen aldeko zentroak aste honetan jakinarazi duenez, Israelgo agintariak “askatu eta deportatu” egin dituzte Saif Abukeshk ekin-tzaile espainiar-palestinarra eta Thiago Avila brasildarra, Israelen

atxilotuta “sei egun gogor” igaro eta gero. Bi aktibistek, munduari “presioa egiten jarrai dezala” eskatu diote, “gure lagun tunisiarrak eta Israelgo kartzeletan legez kanpo atxikita dauden ia 10.000 preso politiko eta bahitu palestinarrak askatzeko”. Horrekin batera, azalpenak eskatu dizkiote Europar Batasunari, “eta, bereziki, Greziari, egunetako isiltasun eta konplizitatearen ondoren”.



## Atzerritarren ezohiko erregularizazioari buruz informazioa emateko saioa

**S.H.** Atzerritarren ezohiko erregularizazioari buruzko hitzalda antolatatu du Eibarko PSE-EEk astelehenerako, maiatzaren 18rako. *Atzerritarren ezohiko erregularizazioa 2026an. Baldintzak, epeak eta nola eskatu* izenburuko saioa 19:30ean hasiko da, Eibarko Herriaren Etxean (areto nagusian), herritar guztientzat zabalik. Antolatzaileen berbetan, “zalantzak argitzeko eta laguntza gehien behar duten pertsonen orientazioa eskaintzeko” hitzaldia izango da. Eibarko PSE-EEtik prozesu honen garrantzia azpimarratu dute, “gure hirian bizi diren pertsona guztien integrazio osoa eta eskubide-berdintasuna bermatzeko”.

## Arlo soziosanitarioan aritu ahal izateko ikastaroan izen-emateko epea zabaldu dute

**S.H.** Eibarko Udalak eremu soziosanitarioko ikastaro bat jarriko du abian, langabetuentzat, lan prekarioa duten langileentzat, edo Lanbide enplegu-zerbitzuan izena emanda dauden enplegu-eskatzaileentzat. Azaldu dutenez, “zaintzako profesionalen premia gero eta handiagoa den sektorean, lan-merkatutako sarbidea hobetzea da helburua”. Parte-hartzaileek Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen

duen Profesionaltasun Ziurtagiria eskuratu ahal izango dute. Programa Lanbiderekin lankidetzan garatuko da eta, teoriarekin batera, zentroetako praktikak eskainiko ditu, baita prozesu osoko jarraipen pertsonalizatua ere. Ikastaroa ekainaren 1ean hasiko da, eta klaseak goizez emango dira (450 ordu izango dira). Izena emateko epea zabalik dago, Lanbiden, eta informazio gehiagorako ere bertara jo daiteke.



**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK  
*Enkarguak etxera*



**Zure publizitatea  
herriko aldiakarian**

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus



**Arrate  
Urzuriaga Bollar**

**7. URTEURRENA**  
2019/05/14

**“Beti izango  
zaitugu gogoan”**



- ETXEOAK -



## Dendetako eskaintza kalera aterako dute ostegunean, 'Eibar Loratzen' ekitaldian

**S.H.** Eibarko Dendarien Elkar-teak, Gipuzkoa Merkatariak federazioak eta Eibarko Udalak antolatuta, maiatzaren 21ean (eguen) *Eibar Loratzen* izeneko ekimena egingo da. Beste toki batzuetako *braderie* edo kale-azoketan bezala, egun osoan zehar (10:00etatik 20:00etara) dendak kalean egongo dira, horrela bakoitzaren eskaintza jendeari gerturatzeko. Antolatzaileek azaldu digutenez,

“batzuk Errebalen egongo dira eta, beste batzuk, berriz, denda parera aterako dituzte arropak eta bestelako produktuak”. Honako hauek hartuko dute parte: Adarabar, Bambi, Cedry, Corral, Doroti, Gigil Design, Glow up, Gratzina, Guby, Helmet House, Igmarr, Irritsa, Kopiña, Marais, Marsi, No Comment, Nona, Oskarbi, Pissa, Twins, Vieco, Xare eta Zentral Optika.

## Armeria Eskolako ateak zabalduko dizkiete herritarrei bihar, 11:00etatik 13:00etara

**S.H.** *Armeria Eskola ezagutu* jardunaldia ospatuko dute Armeria Eskolan bihar zapatua, 11:00etatik 13:00era. Ikastetxetik adierazi dutenez, “aukera berezia izango da Armeria Eskolak azken urteotan izan duen eraldaketa herritarrei erakusteko. Jardunaldian zehar, azpiegitura digitalak (murgiltze eta interaktibo gelak), berrikuntza proiektuak, Learning Factory metodologia edo inguruko erakunde,

enpresa edo ikastetxeekin izaten ari garen kolaborazioak ezagutu ahalko dituzte parte-hartzaileek.

Umeentzako eskulan tailerrak eta yoga ere izango ditugu. Hamaitetako batekin amaituko da jardunaldia”. Antolaketa errazte aldera, aurretik izena ematea eskertuko lukete antolatzaileek. Horretarako, edo informazio gehiagorako, Armeria Eskolaren webgunera jo daiteke.



## Rol-jokoen 'Heroes de grafito' jardunaldia egingo da maiatzaren 23an

**S.H.** Odissea kultur elkartearen es- kutik, *Heroes de grafito* rol-jarduera egingo da maiatzaren 23an (zapatua). Errebaleko gunean izango da, goizeko eta arratsaldeko saioekin (10:00etatik 14:00etara eta 16.00etatik 20:00etara). Hasi eta amaitu egiten diren partidak (*one-shots*) dira programazioaren ardatza: “Saio bakarrean istorio bat osatzeko aukera ematen duten partidak dira hauek. Planteamendu horrek esperientzia duten pertsonen zein aisialdi mota honetara lehen aldiz hurbiltzen direnen parte-hartzea errazten du”.

Edonork har dezake parte ekime- nean baina, joko-mahaietan parte hartu ahal izateko, aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa dela gogorazi dute antolatzaileek. Horretarako odiseasociacion@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Elkar- tetik jendea parte hartzera animatu dute: “Gai guztietako partiden eguna izango da eta, hori antolatzeko, Atlas eta Habitantes de Inssmouth elkarteekin laguntza izango dugu”. Partidei buruzko informazio guztia elkartearen webgunean kontsultatu daiteke.



## Errebal Plazaia Eibarko modaren erakusleihu bilakatuko da gaur

**S.H.** Eibarko Dendarien Elkarteak, Udalaren laguntzarekin antolatuta, *Eibar Modan* desfilea egingo da gaur (barixakua) Errebalen. Antolatzaileen berbetan, “hirugarren edizioa izango da, eta proposamen bisualago, dinamikoago eta profesionalago batekin gatoz”. Iluntzean, 20:00etan hasiko da ekitaldia, eta Eibarko 20 denda baino gehiagoren proposamenak erakutsiko dituzte: haur zein hel-

duentzako moda, osagarriak, optika, lentzeria, bainujantziak... Blenda ile-apaindegiak orraztu eta prestatuko ditu modeloak. 5 eta 80 urte bitarteko 70 eibartar baino gehiagok hartuko dute parte: “Unerik berezietako bat *Eibar Moda Sortzen* lehiaketan sortutako diseinuen aurkezpena izango da. Parte-hartzaileek euren sorkuntzak pasarelan erakutsiko dituzte, eta epaimahaiaren az-

ken erabakia desfilean bertan ezaugarziko da. 200 euroko hiru sari emango dira, eta talde irabazleak Alfaren estatu mailako lehiaketan parte hartzeko txartela lortuko du”. Lehiakideak aurreko domekan aritu ziren Errebalen josten, eta eguerdiko ekaitzarekin batera amaitu zituzten gaur erakutsiko dituzten diseinuak (argazkian), “ilusio eta sormen-ahalmen handiarekin”, epaimahaikide batek esan digunez.

Goi Argiko 14 emakumek itxiko dute desfilea, “sorpresa batekin”. Ekitaldia publikoarentzat irekia izango da, edukiera bete arte.

 <p><b>FUNEUSKADI</b> Grupo Asistia</p>	 <p><b>FUNERARIA MUGICA</b> Funerariak</p>
 <p><b>TANATORIO EIBAR</b></p>	 <p><b>TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR</b></p>
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	



## Marifran Guenaga Arregui

2026/05/02

**“Gure oroitzapenetan gordeko zaitugu betiko”**




- ZURE LAGUNAK -

# Zatitutako mundu batean zubiak eraikitzen

Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko da maiatzaren 18an, eta aurten *Museoak mundu zatitua batzen* izenburuari jarraituko dio. Gatazka politikoak, desberdintasun sozialak, polarizazioa, migrazioak edo kultura-arteko tentsioak gero eta nabarmenagoak diren garai honetan, leloak azpimarratu nahi du museoek ez direla objektuak gordetzeko tokiak soilik, pertsonak eta komunitateak elkartzeko espazio ere badirela.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



**M**useoen Nazioarteko Eguna (*International Museum Day*) 1977. urteaz geroztik ospatzen da, *International Council of Museums* (ICOM) erakundeak sortu zuenetik. Museoek gizartearen duten papera azpimarratzea, eta kultura-ondarea zaindu, ikertu eta herritarrei hurbiltzearen garrantzia azpimarratzea da helburua.

Urtero maiatzaren 18an ospatzen da mundu osoan, eta edizio bakoitzak gai edo lelo berezi bat izaten du, gaur egungo erronka sozial, kultural edo teknologikoei lotuta. Museo askok egun horretan jarduera bereziak antolatzen dituzte: bisita gidatuak, tailerrak, hitzaldiak edo doako sarrerak, besteak beste. Horrela, Eibarko Armagintzaren Museoak hainbat jarduera antolatu ditu Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Aurtengo leloa *Museoak mundu zatitua batzen* da, eta horren harira, maiatzaren 18tik 22ra bitartean bost bisita gidatu berezi egingo dituzte, herriko hainbat elkarterekin elkarlanean. Museoa elkarrizketa, inklusioa eta kulturantzatasuna sustatzeko topagune bihurtzea da asmoa.

Museotik adierazi dutenez, “aurtengo gaiak nabarmentzen du museoak banaketa sozial, kultural edo politikoen arteko zubiak direla; elkarrizketa, inklusioa eta elkar-ulertzea sustatzen duten gisa ulertu behar



Museoak jendea elkartzeko eta komunitatea osatzeko tokiak ere badirela eman nahi dute aditzera aurtengo leloarekin. Horretarako hamaika aukera eskaintzen dituzte gaur egungo museoek. Eibarkoan, adibidez, *escape room* edo ihes-gela eska daiteke.

dira. Ondarea eta memoria babestean, museoek ikasteko eta hausnartzeko guneak sortzen dituzte; ahots ezberdinak zabaltzen dituzte eta gizarteari lagundu egiten diote konplexutasunari modu eraikitzailean heltzen”.

Bisita gidatu bakoitzean, herriko elkarteren bateko kideek hartuko dute parte, “museoa elkarrizketa sustatu eta harreman berriak ezartzeko gunea dela ikusaraziz. Gure historiaren eta iraganaren ibilbidearen bitartez, etorkizuna eraikitzeko pausoak eman nahi ditugu, inklusioa, irisgarritasuna, berdintasuna eta kulturantzatasuna oinarri izanik”.

Aipatutako bisita hauek antolatzeaz gain, maiatzaren 17an museorako sarrera doakoa izango da: “Beraz, Museoa oraindik ezagutzen ez duten guztiak etortzera animatu nahi ditugu, ez zaie damutuko eta. Bisitan etortzen diren guztiei asko gustatzen zaie”.

### Doako bisita gidatuak hilero

Museoen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako jarduerak, urtean zehar egiten diren beste batzuekin batera, Eibarko Armagintzaren Museoa herritarren artean ezagutzera emateko aitzakia aparta ere badira. Asmo horrekin antolatzen dituzte, adibidez, doako bisita gidatuak. Hilean behin, zapatu arratsalde batean eskaintzen dituzte horrelakoak, Museoan urte osoan ikus daitekeen erakusketa pixkat hobeto ezagutu nahi duten guztientzat. Aurretik izena ematea, besterik ez dute eskatzen. Maiatzaren 23an (zapatua) izango da hurrengo bisita, 17:00etan euskaraz eta 18:30ean, berriz, gaztelaniaz. Izena emateko, 943708446 telefono zenbakira deitu edo, bestela, [museoa@eibar.eus](mailto:museoa@eibar.eus) posta elektronikora mezua bidali daiteke.

**Hilero doako bisita gidatuak eskaintzen dituzte, Museoko erakusketa modu sakonagoan ezagutu nahi duten guztientzat. Maiatzaren 23an izango da hurrengoa**



NAIA KORTABERRIA

## Partida bat

Zenbat aldiz partekatu duzu albiste bat haserreak bultzatuta? Eta zenbat aldiz pozak bultzatuta? Uste dut emozioek mobilizatzeko gaitasun handia dutela. Are gehiago, esango nuke emozio bakoitzak erreakzio desberdinak sortzen dituela. Batzuek berehalako erreakzioak eragiten dituzte: konfrontazioa, biraltasuna edo hiperbigilantzia. Beste batzuk, ordea, polikiago funtzionatzen dute. Baina denborarekin, loturak, konfiantza eta komunitatea eraikitzeke gai dira.

Gertakaria → Emozioa → Erreakzioa.

Orain arte, norbanako bezala erreakzionatzen dugunean gertatzen denaz ari nintzen.

Baina badaude beste emozio batzuk, partekatzen ditugunean zerbait handiago bihurtzen direnak: poza, ilusioa edo esperantza adibidez. Eta denboran iraun ez gero, lotura eta komunitatea sortzeko gai dira.

Gainera, komunitateak ez dira hutsetik sortzen. Elkartzeko espazioak behar dituzte. Elkar entzun, eztabaidatu, antolatu edo, besterik gabe, elkarrekin egoteko lekuak. Horregatik iruditzen zait hain interesgarria Eibarren sortu berri den TRIKU bezalako espazioa: balio euskaltzale, ezkertiar eta feministak partekatu eta komunitate bihurtzeko lekua.

Izan ere, badira azkar erreakzionarazten gaituzten emozioak. Eta badira, mantsoago bada ere, komunitateak eraikitzen dituztenak. Komunitateari buruz luze hitz egin genezake, baina nik gaur beste zerbait proposatuko dizut; oroitzapen batera itzultzea. Eta horretarako, jolas txiki bat prestatu dut:

### 1.- Jolasteko, hiru lege onartu behar dituzu:

- Erabili oroitzapenak, ez hainbeste arrazoia.
  - Ez pentsatu “nolakoa izan beharko lukeen”; gogoratu nolakoa izan zen.
  - Saiatu eszenak ahalik eta xehetasun handienarekin irudikatzen.
- Legeak onartu badituzu, has gaitzen.

### 2.- Aukeratu oroitzapen bat:

- Zure auzo edo herriarekin batera antolatutako zerbait.
- Elkarte, talde edo komunitate batekin egin zenuen ekintzaren bat.
- Planifikatu gabe, beste batzuei laguntzen amaitu zenuen momenturen bat.

Saiatu burura ekartzen: Zer eguraldi egiten zuen? Non zeundeten? Klean? Lokal batean? Nor zegoen bertan?

### 3.- Goazen puntuatzera

Oroitzapen hori burura ekartzean...

- Harrotasuna sentitu baduzu → +1
- Merezi izan zuela sentitu baduzu → +1
- Errepikatzeke gogoia sentitu baduzu → +1

Gutxienez 2 puntu lortu badituzu, jarraitu. Bestela, itzuli 2. puntura eta aukeratu beste oroitzapen bat.

### 4.- Azken galdera

Ekarri berriro ere oroitzapen hori burura, eta erantzun galdera honi:

“Zer falta izango litzateke zu bertan egon ez bazina?”

### 5.- Amaiera

Puntuak gehitu badituzu, eszenak, pertsonak edo emozioak burura etorri bazaizkizu, segur aski konturatuko zinen partida hau jolasari ekin baino askoz lehenago hasi zinela jokatzeko: elkartasuna erakutsi zenuenean, behar zuenari laguntza eskaini zenuenean edo beste batzuekin konfiantza jarri zenuenean. Horrelako momentuak ez dira erraz ahazten. Pepe Mujicak zioen bezala, bada neurtzeko zaila den aberastasun bat: geure buruarentzat bakarrik bizitzea izan den diogunean agertzen dena. Eta zuk? Noiz sentitu zenuen azkenengoz aberastasun mota hori?




Saio honetan, Debabarreneko eduki sortzaileak izan ditugu hizpide. Kafetxo baten bueltan eseri, eta eskualdeko hainbat profil ezagutarazi ditugu, sortzen duten edukiaren arabera sailkatuta: lifestylea, artea, kirola, ikus-entzunezkoak, kazetaritza, politika edota marka txikiak.

### ALBISTEAK

Arkaitz Urangak irabazi du Minaberry itzulpen beka Juerg Schubiger-en narrazio bilduma bat euskaratzeko.

Iñaki Rementeriak 100 fosil inguru dituen bilduma bat eman dio Euskal Kostaldeko Geoparkeari.



### Mai 15

IKUS.	<b>ESKALERILLAS, ETXEPE BAT BORROKAN</b>	18:00 KULTU (EIBAR)
JAIK	<b>ESKUBALOI EGUNA</b>	DJ AGUS 20:30 UNTZAGA (EIBAR)
ANTZ.	<b>NAHI TA EZIN</b>	20:30 ANTZOKI (ELGOIB.)
AURK.	<b>HERRITU EKIMENA</b>	19:00 PLAZA BERRI (SORAL)
TAILER	<b>BURUARINAK EGITEKO</b>	17:00 FRONTOIA (MENDARO)
JAIK	<b>SAN ASENTZIO</b>	19:30 ENDOIA (ITZIAR)
TXAPEL	<b>BANAKAKO TXAPELKETA</b>	18:00 ALDATS (DEBA)
HITZAL.	<b>60. HAMARKADAKO DANTZA BERPIZKUNDEA</b>	18:00 MUTRIKU (GAZTETXEA)

### Mai 16

TAILER	<b>DIRU-ZORRO BIRZIKLATUAK</b>	16:00 ZURRUTOKI (ERMUA)
TAILER	<b>PARKOUR</b>	17:00 LIBURUTEGIKO ATEA (ERMUA)
TOPAK	<b>URBAN SKETCH</b>	10:00 ESTAZIÑO (EIBAR)
JAIK	<b>ESKUBALOI EGUNA</b>	20:00 ERREBAL/ESTAZIÑO (EIBAR)
	KALEJIRA, BAZKARIA, KONTZERTUA	
BISIT.	<b>ARMERIA ESKOLA</b>	11:00 ARMERIAN (EIBAR)
AZOK	<b>ZIENTZIA AZOKA</b>	11:00 LEKUEDER (ELGOIBAR)
TXAPEL	<b>HIRUTXIRLO</b>	17:00 SAN ANDRES (SORAL)
JAIK	<b>DEBARREN EGUNA</b>	DEBA
JOLAS	<b>DEBARRAK EUSKERAZ</b>	13:00 PLAZA ZAHARRA (DEBA)
BISITA	<b>DEBA-ZUMAIA</b>	ITSASOZ 17:30 AEK (DEBA)
MUSIK	<b>TXOLA ETA POTXOLA</b>	02:00 GAZTETXEA (DEBA)
TAILER	<b>KATILUAK MARGOTU</b>	16:00 KONTZEJUZARRA (MALLABIA)

### Mai 17

RASTRO	<b>BELERRASTRO</b>	12:00 BELEKO (EIBAR)
JAIK	<b>ESKUBALOI EGUNA PARTIDUAK</b>	10:00 UNTZAGA (EIBAR)

# “KIROLA ETA BIDEOJOKOAK NAHASTU

## MAIKYS

Mikel Díaz de Guereñuk eta Mikel Azkargortak “Maikys” proiektua abiatu zuten sare sozialetan Wii Sports estiloko bideoekin. Orain, “Maikys Party” izeneko formatu berriarekin Euskal Herrian barrena dabiltza minijoko eta erronka berriak grabatzen.



Mikel Díaz de Guereñu gasteiztarra eta Mikel Azkargorta eibartarra dira sare sozialetan “Maikys” izenez ezagun egin den proiektuaren sortzaileak. Wii Sports bideojokoarekin inspiratuta, kirolak eta herri kirolak benetako erronka bihurtu dituzte TikTok eta Instagramen. Orain “Maikys Party” izeneko serie berria abiatu dute: dado erraldoi baten bidez EAE osoan zehar ariko dira minijokoak eta probak eginez. Hasieran hobby modura hasi baziren ere, proiektua gero eta handiagoa bihurtzen ari dela aitortu dute.

### Aurkeztu zuen buruak.

**Mikel Díaz de Guereñu:** Mikel naiz, gasteiztarra, 23 urte ditut eta pedagogoa naiz.

**Mikel Azkargorta:** Ni ere Mikel naiz, 22 urte ditut eta Magisteritza ikasten ari naiz. Iazko irailtik gabiltza bideoak igotzen.

### Nolatan hasi zineten bideoak egiten?

**Mikel Díaz de Guereñu:** Hasieran beste kontu batean modarekin lotutako bideoak egiten genituen, baina aspertu egin ginen. Gero, “Maikys”

# “KIROLA ETA BI

# TU NAHI GENITUEN, BIDEO ORIGINAL E TA SORTZAILLEAK EGITEKO"EGITEA ERABAKI PO

proiektuarekin itzuli ginen eta ordutik oso gustura gabiltza.

## Zergatik Wii Sports estiloko edukia?

**Mikel Díaz de Guereñu:** Txikitatik gustatu izan zaizkit bideojokoak eta Wii-a izan zen nire lehen kontsola. Gainera, biok pilotan ibili gara beti. Kirola eta bideojokoak uztartu nahi genituen, eduki originalak egiteko.



## Hasieratik ikusten zenuten proiektu serio bezala?

**Mikel Azkargorta:** Hasieran hobby modura hasi ginen, baina denborarekin ikusi dugu zer bait handiagoa bihur daitekeela.

## Zer da "Maikys Party"?

**Mikel Azkargorta:** Formatu berria da. Dado baten bidez Euskal Herrian barrena herriz herri mugitzen gara minijokoak eta erronkak eginez.

**Mikel Díaz de Guereñu:** "Maikys Sports"-ekin kirolak egiten genituen batez ere; "Maikys Party"-n, berriz, minijokoak dira protagonistak.

## Zergatik erabaki zenuten herri kirolak ere sartzea?

**Mikel Azkargorta:** Euskal Herritik kanpoko jendeari gure kirolak erakutsi nahi dizkiogu. Uste dugu jende askok ez dituela ezagutzen.

## Nolako esperientziak bizi izan dituzue grabaketetan?

**Mikel Díaz de Guereñu:** Gehienak oso onak izan dira, baina hipika grabatzen ari ginela zalditik erori ginen. Kolpe handia hartu genuen (barreak).

## Amaitzeko, aurrerapenik eman dezakezue?

**Mikel Díaz de Guereñu:** Gasteizera iristean zer bait handia egingo dugu.

**Mikel Azkargorta:** Eta jendeak aurrez aurre gu ezagutzeko aukera izango du. Beraz, animatu eta etorri!



LITIKOA DA: SARETAN GAZTEENGAN

# Euskara eta euskal kultura ardatz

Maiatzaren azken asteburuan ospatu izan ohi da Euskal Jaia eta, aurten ere, festa izango dugu asteburu horretan, baina jaiak ez da horretara mugatuko. Iaz hasitako bideari jarraituz, hilaren 21az geroztik hainbat ekintza egingo dira, poliki-poliki maiatza euskararen eta euskal kulturaren hilabetea bihurtzeko asmoz.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

**E**ibarko Euskal Jaiaren 61. edizioa ospatuko da aurten. Sona handiko festa izaten da gurean eta demaseko parte-hartzea izaten du herrian. Noski, hori horrela izateko lan handia dago atzetik eta horren lekuko dira Miren Hazas, Julen Bartolome eta Aresatz Usobiaga. Euskal Jaiaren antolakuntzan ibili dira hirurak eta Eibarko Klub Deportiboak, herriko beste eragile batzuekin elkarlanean, jai hauen inguruan prestatu dutena azaldu digute.

Klub Deportiboa hausnarketa prozesuan dabil azken denboran eta Euskal Jaia ere horren barruan dago. Horrela, berritasunak eta aldaketak izango ditu jaiak aurten eta, adibidez, ez da kantutegi afaririk egingo eta azken asteburuko domekan ez da ekintzarik izango. “Herriarren parte-hartzea jarri nahi da martxan eta Euskal Jaiko asteburua lar luze geratzen zela ikusten genuen”, diosku Usobiagak. “Jen-



deak jaiak bizitzea nahi dugu, euskaraz gainera, eta orainoan batez ere zapatuan kontzentratuko dira ekintza gehienak, baina aldaketa hortik haratago doa”.

Izan ere, Euskal Jaia ez da asteburura mugatzen eta ekintzak hamar egun lehenago hasiko dira. “Iaz hasi ginen Euskal Jaiaren aurreko asteburua ere indartzen zerbait xumea eskainiz (kontzertu bat prestatu genuen), baina aurten ekintza gehiago egingo ditugu eta ez bakarrik aurreko asteburuan, baita beste egun batzuetan ere”, gehitzen du Bartolomek.

Usobiagak esan bezala, “orain arte, Euskal Jaia musikaren eta dantzaren inguruan mugitu da batipat, baina orain beste ekintza batzuk bultzatu nahi ditugu, hitzaldiak, bakarrizketak...”.

Izan ere, ideia da maiatza osoa hartuko duen egitaraua prestatzea euskara eta euskal kultura ardatz izango dituen.



Dantzak ezin dira falta Euskal Jaian, baina aurten dantza jaialdia ez da domekan egingo, zapatuan baizik.

### Eragileekin elkarlanean

Eibarko Klub Deportiboa ibiltzen da Euskal Jaiaren antolakuntzan, baina herriko hainbat eragilerekin elkarlanean egingo ditu aurtengo ekintzak. “Euskal kulturaren inguruan lan egiten duten herriko beste eragile batzuekin elkarlanean hasi gara. Aurretik ere egin dugu zerbait, baina aurten gehiago izan da kontzienteki, bilerak eginez... Ez bakarrik lan puntual batzuk egiteko, baizik eta gure esparrua zabalduz”, aipatzen du Usobiagak.

Gauzak horrela, Eibarren Akebai, Gure Esku, Jaixak Herrixak Herrixandako, Arrate Kultur Elkartea, Dantzan, Eibart eta Debemen ere ibili dira Euskal Jaiarako gauzak prestatzen. “Aipatzekoa da Kulturaren papera. Beti egon da Euskal Jaiaren atzean. Izatez, eurak hasi ziren Euskal Jaia antolatzen eta gero Deportivoak hartu zuen erreleboa, baina guretzat oso bidelagun garrantzitsua da”, Usobiagaren berbetan.

**>>> Euskal Jaiaren 61. edizioa ospatuko da aurten, eta hainbat aldaketa eta berritasun izango ditu egitarauak**

**>>> Ekintzak maiatzaren 21ean hasiko dira, baina ohikoa den bezala, jaiak hilaren azken asteburuan egingo du eztanda**

### Hitzaldiak eta bakarriketak

Euskal Jaiaren egitaraua hilaren 21ean hasiko da, 19:00etan, Klub Deportiboan, Lourdes Iriondoren inguruko hitzaldiarekin eta kantaldiarekin. Hitzaldian Alex Gurrutxaga izango dugu, Lorea Jainaga eibartarrarekin batera ‘Lourdes Iriondo bide-urratzaile’ liburuaren egilea, eta egin duten lanaz jardun-

go du, ondoren Iriondoren kantak abesten amaitzeko.

Hurrengo egunean, 22an, ‘Eskilarapekoa’ izeneko bakarriketa eskainiko dute Idoia Torregaraiak eta Mirari Martiarenak, 18:45ean, Depor parean. Eta bakarriketekin jarraitzeko, 23an, zapatuan, 19:00etatik aurrera, Lander Varona, Beñat Iturbe eta Jone Ben-



Miren Hazas, Julen Bartolome eta Aresatz Usobiaga dira Euskal Jaiaren antolakuntzan ibili diren lagunetako batzuk. EKHI BELAR

## >>> Maiatza euskararen eta euskal kulturaren hilabetea bihurtzea da Euskal Jaiaren antolakuntzan dabilzanen asmoa

## >>> Askotariko ekintzak egingo dira aurten: hitzaldiak, bakarrizkeak, proiektzioak, dantzaldiak, kontzertuak, kantu bazkaria...

goa eibartarra izango dira Depor-tiboan.

Gustora barre egin ondoren, musika izango da protagonista Euskal Jaiko lehen kontzertuekin. 20:00etan, Depor parean, 'Ur' eta 'Mixerableak' taldeak zuzenean ikusteko aukera egongo da.

Asteburu horretan ere, 24an, 'Oteiza 14' apostolu' filma eman-

go dute, 18:00etan, Portalean, eta ondoren, 19:30ean, 'Apostoluen sokadantza' egingo da Juan Antonio Urbeltzekin. "Argia dantza taldearen ikuskizun batetik ateratako sokadantza da, oso ikusgarria", Hazasen ustez. "Argia Donostian sortutako taldea da, baina azken urteetan Euskal Herri osoko dantza talde ezberdinekin osatu da",

eta maskarak jantzita ibiliko diren arren, eibartar batek gutxienez euren egingo du dantza.

Hitzaldiak jarraituz, hilaren 28an, eguena, 19:00etan, Garikoitz Goikoetxearen 'Esnatu ala hil' liburua aurkeztuko dute Depor-tiboan eta idazlea izango da bertan solasaldia egiteko.

### **Maiatzeko azken asteburua**

Aurreko egunetan giroa berotu ondoren, maiatzeko azken asteburuan egingo du eztanda Euskal Jaiak. 29an, barixakua, 19:00etatik 21:30era kale animazioa egongo da herriko kaleetan zehar Mausitza txarangarekin, txistulariekin eta gaiteroekin. "Jaia herriko auzo ezberdinetara eramatea nahi izan dugu (Urkizura, Ipurua ingurura, eta Amaña eta Legarre ingurura). Horrela, herriko puntu ezberdinetan musika mota ezberdinak egingo dira entzungai", azaldu digu Hazasek.

Ondoren, 22:00etan, kontzertu handia egongo da Untzagan. “Sorotan Bele ekartzeko apustu handia egin dugu. Guretzat oso talde garrantzitsua izan da. Eibarko Musika Bandarekin batera eskainiko dute kontzertua eta hori ere pozgarria da, banda Euskal Jairako batu dugulako”, diosku Bartolomek.

Zapatua, hilaren 30a, ekintzaz beterik etorriko da goizetik gauera arte. Hasteko, 09:30ean, artisauen eta baserritarren azoka egongo da Toribio Etxebarria kalean. Hartara, Eskune, Eskula, Isabel Orozco eta Zugehina artisauak egongo dira, besteak beste; eta baserritarrei dagokienez, Amazabalegi, Sospola, Loixola, Mandiola Gañekua, Egotza eta Lizagasar. Gainera, goiz osoan zehar, kale berean, stand-a jarriko du Klub Deportiboak eta Gure Eskuk talo-postua ipiniko du Untzagako arkupeetan.

Kirolak ere izango du tokia egitarauan. 11:00etatik 13:00etara VI. Pala Txapelketako finalak jokatuko dira Astelena frontoian; eta 11:00etatik 12:30era herri-kirolak egongo dira Untzagan Zihara Zabala, Leire Olea, Jon Loiola eta Jon Lapazaranekin.

Kaleak animatzeko, 12:00etatik 15:00etara txistu poteoa egongo da Tolosako gaiteroen eta Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearen eskutik; eta 12:15ean Euskal Jaiko kalejira hasiko da Errebaletik.

Jaia Errebalera itzuliko da gero, 15:00etan kantu bazkaria egingo delako bertan, baina lehenago, 12:35ean, zita garrantzitsua izango dugu Untzagan. Izan ere, Euskal Jaiko Dantza Jaialdia egingo da



Goian, 'Sorotan Bele gogoan' ikuskizuna. Behean, 'Apostoluen soka-dantza' Oteiza Museoa, Altzuzan. IÑAKI ALDATZ.

bertan goi mailako musikariek eta dantzariekin. Musikarien aldetik Joseba Tapia, Arkaitz Miner, Quico Puges eta Iraide Ansorena izango dira, eta Kezka, Haritz, Gure-Kai, Gorosarri eta Txindurri dantza taldeak ibiliko dira dantzan.

Informazio  
gehiago



# “Nirekin hasi euskaraz”

## kanpaina abiatuko du ...eta kitto!-k astelehenetik aurrera



Eibarko tabernetan euskararen erabilera bultzatzea du helburu euskara elkartearen ekimen berriak eta bi astez egongo da martxan, maiatzaren 18tik 29ra.



**B**adira hamar urtetik gora ...eta kitto! Euskara Elkartek "Euskeraz Primeran!" ekimena martxan jarri zuela, Eibarko merkataritzan eta ostalaritzan bezeroen eta langileen arteko euskarazko harremana errazteko helburuarekin. "Euskararen normalizazio-prozesuan eremu sozioekonomikoa funtsezkoa da, eta haren baitan merkataritza eta ostalaritza sektoreak estrategikoak dira herritarren eguneroko bizitzan eta harremanetan duten eraginagatik", diote elkartetik. Urte hauetan guztietan, elkarteak hainbat ekintza egin ditu eta egi-

ten dihardu zerbitzuen sektorean, orokorrean, profesionalen eta bezeroen artean euskararen erabilera bultzatzeko: gilda-lehiaketa, horma-irudiak, azukre-zorroak, pegatinak, sentsibilizazio-kanpainak...

**Herriko 27 taberna kanpainan** Maiatzaren 18tik 29ra, bi astez, egongo da martxan "Nirekin hasi euskaraz" kanpaina 27 tabernatan. "Ekintza berri honetan ostalaritzako profesionalengan eta herritarrengan jarriko dugu arreta, bien inplikazioa ezinbestekoa baita hizkuntza dinamika positiboak sortzeko eta euskarak egu-

neroko bizitzan duen presentzia indartzeko". Eta lehen agurra bezalako keinu xume eta errazaren bidez lortu nahi da helburu hori, "lehen hitza edo agurra euskaraz izateak ateak zabaltzen baitizkio euskarari".

Kanpainaren helburua, beraz, ahal den guztietan, zerbitzariaren eta bezeroaren arteko lehen harremana euskaraz izan dadila da eta, horretarako, hainbat material jarriko ditu eskura ...eta kitto!-k. Zerbitzariak "Nirekin hasi euskaraz" dioen pin-a eramango dute soinean eta herritarrek, berriz, pegatina. "Aurrean dugunari esaten ari gatzazio gugana euskaraz zuzentzeko, behintzat lehenengo hitza. Gero, bakoitzaren gaitasunaren arabera elkarriketak euskaraz jarraituko du edo ez, baina neurri batean ari gara euskal hiztunon eskubideak aintzat hartzen". Izan ere, keinu txikia eman badezake ere, "horren atzean errealitate askoz zabalagoa ezkututzen da: elkarbizitza linguistikoa, euskararen ikusgarritasuna egunerokoan eta euskal hiztunek normaltasunez erabiltzeko dugun eskubidea".

### Pegatinak ...eta kitto!-n eta tabernetan

Tabernariak jaso dituzte honez gero euren pin-ak; herritarrek, berriz, hainbat modutan jaso ahal izango dituzte pegatinak. "Ale honetan bertan 16 pegatina dituzue eta gauza bera egingo dugu hurrengo alean ere, maiatzaren 22koan. Horrez gainera, eskura izango dituzue Eibarko bi euskaltegietan, Udal Euskaltegian eta AEK-n, eta kanpainan parte hartuko duten tabernetan ere". Baina ikur edo sinboloetatik

harago, "helburua hizkuntza-ohituretan eragitea eta horiek aldatzea da, hau da, eguneroko espazioetan -kasu honetan taberna-giroan- euskararen erabilera normalizatzea.

### Euskaraz ez dakitenentzat ere bai

Euskaraz jakin ez edo euskaraz egiteko ohitura galduta dutenengan ere jarriko du fokua kanpainak. Horretarako, "euskarazko esaldi errazak dituzten euskarriak jarriko ditugu ikusgai tabernetako barretan, kaixo, egun on, eskerrik asko eta antzekoekin. Gehienok, guztiok ez esa-

tearren, euskalduna izan ala ez, ezagutzen ditugu, baina batzuetan badirudi halako pizgarri bat behar izaten dugula aktibatzeko".

Maiatzaren 18tik 29ra, beraz, badakizue. Jarri soinean pegatina eta hasi euskaraz!

### Parte hartuko duten tabernak

Akara, Amesti, Ametsa, Aterpe, Azkena, Balkoi, Beleko, Bossa, Buenos Aires, Casino, Depor, Eibarko Hoggar, Guridi, Juanito, Kalaka, Katu Kale, Kili kili, Kontent, Kultu, Le petit, Ongietorri, Portalea, Sheiko, Tarte, Trinkete, Txaltxa eta Txoko.



## Herritarren ahotik

JOKIN  
HAZAS



EDURNE  
ZENARRUZABEITIA



GORKA  
GUENAGA



Harrera beti egiten diot euskaraz bezeroari. Garrantzitsuena, nire ustez, inizatiba da, gogoia. Pixkatekin asko egin daiteke, esaldi apur batzuekin osa daiteke elkarriketa txiki bat. Egia da, gaztele-raz eskatzen digutenean gaztele-raz erantzuteko joera dugula, baina harrera hasieratik euskaraz eginez gero, bezeroa euskalduna bada, euskaraz jarraituko du. Lehen hitz edo agur hori euskaraz izatea oso garrantzitsua da. Eta, jakina, inguruak, paisaia linguistikoak asko laguntzen du. Establezimenduak eskaintza euskaraz badu, musika euskalduna jartzen badu... jendeak euskaraz eskatuko du gaztele-raz baino lehenago.

Gehienetan euskaraz eskatzen dut. Batzuetan, ulertzen ez didatela esaten didatenean edo aurpegi arraroarekin begiratzen nautenean ez naiz gustora sentitzen. Inportantea da gogoia edukitzea eta lasai sentitzea gure hizkuntza erabiltzen ari garenean. Horrelako kanpainak ondo daude, zerbait egin beharko dugu, ia behingoz Eibar euskalduntzen dugun.



Oro har, jendeak eskertzen du lehen hitza euskaraz egiten diotenean. Batzuek, agian, ez dakite eta gaztele-raz erantzungo dizute baina beste batzuk saiatzen dira euskaraz erantzuten. Askotan guk geuk aldatzen dugu gaztele-raz eta ez dakit saiatzen denari mesede edo kalte egiten diogun, pausoak ematen ari den horri lagundu behar zaio, denok batera eskutik eta naturaltasunez egiten badugu errazagoa da. Hizkuntza-eskubideen kontua ere ezin dugu ahaztu. Jakintza bat, kasu honetan hizkuntza bat jakitea, ez da gehigarri bat, ez jakitea bihurtzen da eskubide. Harrigarria da. Baloratu dezagun jakintza, ez ezjakintza. Dakienaren eskubideak bermatu eta sustatu behar dira.

# EUSKARAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA HIZPIDE

Testua ANA AIZPURUA RUBIO  
Argazkiak IRUNE JAIO /EKHI BELAR

Euskararen etorkizunari buruzko kezka, hausnarketa eta proposamenak mahai gainean jarri zituzten martitzenean Eibarren, Euskararen Sozializazio eta Transmisioari buruzko Mintegiaren 16. edizioan. SD Eibar-ren prentsa aretoan egindako jardunaldian, euskararen egoera demolinguitikoa, hizkuntza eskubideak, transmisioa eta aro digitaleko erronkak izan dituzte hizpide aditu eta eragileek. Goizean zehar egindako hitzaldiek eta mahai-inguruak agerian utzi dute euskararen etorkizuna ez dagoela idatzita, baina datozen urteak erabakigarriak izango direla euskararen norabidean. ...eta kitto! Euskara Elkartek eskerrak eman nahi dizkie bertaratutako guztiei eta Eibarren AKEBAI, SD Eibar, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari ekitaldia antolatzen laguntzeagatik.



**Juanjo Allur eta Unai Oartzun (SIADeco)  
eta Miren Seguro (UEMA)**

## Norantz doa euskara?

UEMA-keskatuta, Siadeco-k egindako ikerketak Hego Euskal Herriko etorkizun demolingüistikoa irudikatu du, gaur egungo joerak eta 2036ra arteko proiektzio demografikoak uztartuta. Azterketaren arabera, euskararen ezagutza datuek hobekuntza batzuk erakusten jarraituko duten arren, erabileran eta transmisioan ahuleziak agertzen hasi dira dagoeneko.

Azaldu dutenez, datozen urteetan biztanleria euskalduna zahartze prozesu batean sartuko da. Horrek badu alderdi positibo bat ere: azken urteetan oztopo modura aipatu izan den adinekoen artean euskararen ezagutza txikia neurri batean gainditzen joango da.

Hala ere, migrazio mugimenduek eragin handia izango dute. Hego Euskal Herria herrialde hartzailea izango dela aurreikusten dute, eta etorriko den biztanleriaren zati handi bat ugalkortasun adinekoa izango da. Horrek eragina izango du lehen hizkuntzan, etxeko erabileran eta hizkuntza transmisioan.

### **Gazteen artean ere beheranzko joerak antzema- ten dira**

Ikerketaren arabera, etorkizun hurbilean euskararen ezagutza mailak apaldu egin daitezke haur eta gazteen artean. Migrazioaz gain, beste joera batzuk ere antzeman dituzte transmisioan eta etxeko erabileran.

Bertan jaiotako familien artean ere gero eta gutxiago transmititzen da euskara soilik; gero eta ohikoagoa da bi hizkuntzak (euskara eta gaztelera) batera erabiltzea eta transmititzea. Horren ondorioz, gero eta hiztun gehiago biziko dira erdara nagusi duten inguruneetan, eta gero eta gutxiago arnasmune euskaldunetan.

Era berean, hazten ari da euskara lehen hizkuntza bakarra ez dutenen kopurua. Horrek, askotan, erdaraz erosoago aritzea edo euskaraz gaitasun mugatuagoa izatea dakar, eta ikerlariaren ustez faktore horiek guztiek euskararen erabilera soziala zaildu dezakete.

Ondorioz, orain arteko norabideari eutsiz gero ez dute aldaketa handirik espero. Alde positiboak badaudela azpimarratu dute, baina ahuleziei eta datozen erronkei aurre egiteko neurri sendoak beharrezkotzat jo dituzte.

### **“Geldialdia atzerakada bihur daiteke”**

UEMA-ko ordezkariak azaldu duenez, ikerketaren emaitzek kezka handia eragin du, eta azken hilabetee-



tan hainbat eragile eta instituzioekin partekatu dituzte hausnarketak. Ikerketaren ondorio nagusietako bat da gune trinkoen ahultzea; familiako hizkuntza-ohiturek eta euskara ez den lehen hizkuntzen presentziak presio handia eragiten dute, eta horrek zuzenean eragiten duela hizkuntza gaitasunean eta erabileran. Bestetik, nabarmendu dute azken hamarkadetan gazteen artean hezkuntzaren bidez lortutako aurrerapenak arriskuan egon daitezkeela. Hirugarren ondorio nagusia da azken urteetan aipatzen den “geldialdia” benetako atzerakada bihur daitekeela. Azaldu dutenez, 2036ra arteko proiektzioa da aurkeztutakoa, baina joerak denboran luzatuz gero datuek okerrera egiten dute. Hala ere, azpimarratu dute hau ez dela aurreikuspen itxi bat, baizik eta baldintza jakin batzuk mantenduz gero gerta litekeen egoera: gaur egungo joera demografikoek eta hizkuntza politikek bere horretan jarraituz gero.

### **“Etorri diren edo etorriko direnen errua ez da”**

Hausnarketan artean, argi utzi dute ez litzatekeela ego-  
kia izango egoeraren errua etorriko diren herritarrei  
egoztea. Haien ustez, hori bidegabea izateaz gain, ez  
litzateke euskararentzat positiboa izango. UEMA-ren  
arabera, hizkuntza politikak ikuspegi integral batetik  
landu behar dira. Izan ere, gaur egun hizkuntzaren  
bilakaeran eragin handiagoa dute beste alor batzue-  
tako politikek: turismoak, ekonomiak edo hirigintza  
proiektuek, besteak beste. Horregatik, politika horiek  
euskararen aurkako kalteak saihesteko ez ezik, hizkun-  
tza indartzeko ere baliatu behar direla defendatu dute.

Azkenik, etorriko den herritar kopuru handiari begira, hainbat lehentasun zehaztu dituzte. Lehenik eta behin, euskarara hurbiltzeko erraztasun guztiak eskaintzea: harrera politika sendoak, euskara ardatz izango duten neurriak eta euskalduntzea doakoa bermatzea.

## Agurne Gaubeka (Behatokia)

# Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian, oraina eta etorkizuna

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Euskal Herrian hizkuntza eskubideen egungo egoerari buruz plazaratutako txostenak agerian uzten du euskarak bizi duen "oldarraldia" eta herritarrek egunero jasaten dituzten oztopoak. Dokumentu honek hizkuntza eskubideak giza eskubideen barruan kokatzen ditu, administrazioaren nahiz eremu pribatuaren jokabideak salatuz.

### Egoeraren azterketa

Nahiz eta hainbat araudi egon -Euskal Autonomia Erkidegoko legeak, 4/2023 legea edo Europako hizkuntza gutxituen gutuna, besteak beste-, euskal hiztunok askotan bazterketa egoerak bizi ditugu. Gainera, EAEk, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak marko legal desberdinak izateak euskararen egoera gutxitua are gehiago zailtzen du. Behatokiak bildutako dosierrek administrazio publikoko, osasun arloko, segurtasun indarretako, hezkuntzako eta eremu sozioekonomikoko hutsune larriak erakusten dituzte: **administrazioan** herritarrei euskarazko arreta ukatzea edo itzulpenik gabeko dokumentazioa igortzea ohikoa da. **Osasungintzan** pazienteek arreta euskaraz jasotzeko duten eskubidea sarritan urratzen da, eta formakuntza saioak gaztelera hutsean eskaintzen dira. **Eremu pribatuan**, merkataritzan, aisialdian eta kulturaren (zinema, kirol klubak), euskararen presentzia oso eskasa da, eta erakunde askok ez dituzte hizkuntza irizpideak betetzen.

### "Oldarraldia" eta aurkako joerak

Txostenak ohartarazten du euskararen normalizazioa bermatzen duten neurrien eta hizkuntza eskakizu-



nen aurkako eraso bat gertatzen ari dela. Joera hau administrazio jardueren murrizketetan, lan deialdi publikoetako hizkuntza eskakizunen baliogabetzean eta euskararen balioa gutxietean islatzen dela dio Agurne Gaubeka Behatokiko zuzendariak.

### Etorkizuneko erronkak

Egoera iraultzeko, Behatokiak hainbat premisa azpimarratzen ditu: 1. Babes legala: Euskararen normalizatorako lege babes sendoagoa eta eraginkorragoa beharrezkoa da. 2. Administrazioa: Zerbitzu publikoetan euskara ezagutzea ezinbesteko baldintza izatea, eta hizkuntza kudeaketa zeharkakoa bihurtzea. 3. Eremu pribatua: Multinazionalak eta enpresa handiak hizkuntza eskubideak bermatzea behartzeko mekanismoak garatzea. 4. Kontzientziazioa: Hizkuntza eskubideak eskaria-eskaintza parametroetatik atera eta herritar guztien eskubide unibertsal gisa aitortzea, euskaldunon ahalduntzea sustatuz.

Laburbilduz, Agurne Gaubekak azaldu zuenez, "hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoak agerian uzten du euskararen estatusak hobekuntza sakonak behar dituela eremu guztietan, euskaldunak bigarren mailako herritar ez izateko".



**Olatz Altuna** (Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria) eta **Jaime Altuna** (EHUko irakasle eta ikerlaria)

## Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipena

Ikerketa honek Bilbon seme-alabak euskaraz hazten ari diren gurasoen hizkuntza-bizipenak, praktikak eta harreman-sareak aztertzen ditu. Helburu nagusia da gurasoen hizkuntza-ideologiak ezagutzea, familia-eremu-tako dinamikak ulertzea eta euskararen erabilera sustatzeko etorkizuneko esku-hartzeetarako gakoak identifikatzea. **Ikerketaren gako nagusiak**

- Gurasoen hizkuntza-sozializazioa: Guraso askoren-tzat gurasotasuna hizkuntza-mudarako une erabakigarria da. Hala ere, prozesu honek zailtasun nabarmenak ditu, hala nola ingurune soziolinguistiko erdalduna, gizarte-arau naturalizatuak eta erregistro informalean euskaraz aritzeko gaitasun falta.

- Haurren sozializazioa: Eskola da haurren euskarazko erreferentzia nagusia eta “irla” gisa funtzionatzen du. Nerabazarora bidean, euskaratik gaztelaniara jotzeko joera dinamikoa eta metagarria da, eta hori gurasoen kezka eta erronka nagusietako bat da.

- Familia-hizkuntza politika: Gurasoek estrategia anitzak aktibatzen dituzte, esaterako, eskola euskaldunak aukeratzea, aisialdi planak euskaraz antolatzea eta harreman-sareak indartzea. Eremu informala (parkeak, kirola, euskara batzordeak) funtsezkoa da hizkuntzari eusteko.



### Ondorioak eta etorkizuneko erronkak

Bilboko testuinguruan euskara sustatzea erronka handia den arren, badira indarguneak: auzo euskaldunagoak, eskola, eta familia-sareak. Ikerketak honako gomendioak nabarmentzen ditu:

- Babeguneak sortzea: Eremu informalean euskaraz gozatzeko giroa eta aukerak eskaintzea funtsezkoa da.

- Sareen aktibazioa: Familien arteko harremanak estutzea, euskara eta gozamina lotuz.

- Esku-hartze egokituak: Gurasoei zuzendutako programak (euskaltegiak, foroak) beharizanetara egokitzea, euskararekiko lotura ez galtzeko.

- Erreferentziako ereduak: Hiztun eta familia euskaldunak ikusgai egitea, inguruan eragin positiboa izan dezaten.

Ikerketak erakusten du hizkuntza-transmisioa prozesu interaktiboa eta etengabea dela, non gurasoek, seme-alabek eta gizarteak elkar eragiten duten. Euskararen biziraupenerako ezinbestekoa da esparru formaletatik harago, familia-sareen eta aisialdiaren bidezko “bizi-giro” euskalduna indartzea.

**Irati Alvarez, Ana Goitia eta Alex Etxegibel**

## “Euskarak ateak irekitzen ditu”

Ana Goitia eta Alex Etxegibel eduki sortzaileak ere izan ziren Mintegian, Irati Alvarez ...eta kitto!-ko kazetariak gidatutako solasaldian. Euskaraz sortzea gero eta normalizatuago dagoela nabarmendu zuten. Sareetan euskarak “ate asko irekitzen” dituela azpimarratu zuten. Euskarafobia, euskalkien presentzia eta gazteek euskaraz kontsumitzeko ohiturak sortzearen garrantzia ere aipatu zituzten.





## Eibar Igerixanekoak bikain aritu ziren 'Nada de nada SKINS' lehiaketa berezian

**E.B.** Eibar Igerixan taldeko igerilariak 'Nada de Nada SKINS' lehiaketan izan ziren, eta txapelketako unerik ikusgarrienetakoak 'Skins' finalak utzi zituen. Formatu berezi horretan, zortzi igerilarik hasten dute lehia, eta kanporaketa bakoi-tzean onenek soilik egiten dute aurrera, azken txandan buruz buruko final zirrargarria jokatu arte.

Formatu horretan, Paula Calvo izan zen protagonista nagusietako bat. Garaipena eskuratu zuen 50 metro libreko finalean, eta biga-

rren postua lortu zuen 50 bizkar proban. Horrez gain, nagusi izan zen 400 eta 200 libre probetan ere, asteburu biribila osatuz.

Bestalde, Ander Izaguirrek ere erakustaldi bikaina eman zuen. 100 libre proban garaile izan zen, eta 50 libre zein 50 tximeleta probetako finalelara sailkatzea lortu zuen, bere sasoi ona berretsiz.

Emaitza aipagarria eskuratu zuen baita Itsaso Castrillok ere, 200 bizkar proban bigarren postua lortuta.

## Asteburu beta Deporreko pilotarientzat

**E.B.** Gaurko jaialdia 18:00etan hasiko da eta lau partida izango dira ikusgai. Gipuzkoako 4. terdiko Txapelketako 4. jardunaldian, Amillategik Tolosako Landaren aurka jokatuko du. Ondoren, Atxa eta Uriarte Lazkaoko bikotearen aurka arituko dira Udaberriko Eskuz Binakako Txapelketan, eta 4. terdiko beste bi partida egongo dira: Amuategi-Iraeta eta Narvaiza-Seinen.

Kanpoan jokatuko diren partide-tan, Seguiolak Ataunen jokatuko du gaur Izagirreren aurka, eta Condek Azkoitia bihar goizean Oteizaren kontra. Seniorretan, Ibarra Villabonan ariko da Olasagastiren aurka bihar arratsaldean.

Infantiletan, Arrieta eta Agote Andoainen lehiatuko dira, eta Lizarralde-Saez bikotea Hernanin. Alebinetan, Arriola eta Seguiola Aretxabaletan izango dira.

Bestetik, Deporrekoek Herriarteko Txapelketaren 1. fasea gainditu dute eta orain Usurbil izango dute aurkari. Joaneko kanporaketa domekan jokatuko da Astelenan, 16:30etik aurrera. Lehenik kadeteen binakako partida izango da, ondoren jubenilena eta azkenik seniorrena.

## Ipuruako gimnastak podiumera igo dira Espainiako Kopan eta Eskolarteko Torneoan

**E.B.** Santanderren jokatutako Espainiako Kopan, kadete base taldeak 3. postua eskuratu zuen, infantil base taldea 6. izan zen eta jubenil base taldeak 21. amaitu zuen. Gipuzkoako Eskolartekoan aritu ziren gazteek ere emaitza onak ekarri zituzten. Infantil kategorian, Ipurua E taldeak 2. postua lortu zuen, B kategorian aritu ziren Ipurua M-k 1. postua eskuratu

zuen eta A kategorian jokatuko du; eta infantil B taldea 10. sailkatu zen. Alebinetan, iturburu 6. izan zen, San Andres 8. eta Anaitasuna 11.a. Banakakoan, Maren Etayo lehena izan zen uztailarekin eta Odile Guenaga 5. sailkatu zen aparatu berean. Sokarekin, Uxue Kerejeta 9., Ilaia Díaz 8., Elene Muniozguren 9. eta Maialen Cid 10. izan ziren.





## 53 hurrek hartu dute parte ikasturteko azken mendi irteeran

**E.B.** Ikasturteko zortzigarren eta azken mendi irteera egin zuten Eibarko hurrek joan den domekan. Txangoak Arantzazu, Tellakaskueta eta Urbia lotu zituen, eta guztira 53 hurrek hartu zuten parte, hainbat gurasoren laguntzarekin batera.

Parte-hartzaileek 11 km inguruko ibilbide zirkularra osatu zuten. Irteera Arantzazuko Santutegitik egin zuten, eta handik gora abiatu ziren Duruko txaboletatik igaroz.

Ondoren, Tellakaskueta mendiko tontorra gainditu zuten, 1.179 m-ko altueran, eta Urbiako zelaietara jaitsi ziren, gero Arantzazura jaisteko.

Horrela, 2025-2026 ikasturteko ohiko mendi irteerak agurtu dituzte. Hala ere, azken hitzordua oraindik falta da: ekainaren 7an ospatuko den Eibarko Finalista Eguna. Jardunaldi hori Arraten egingo dute eta bertan emango diote amaiera ofiziala mendizale gazteen ikasturteari.

## Jokin Merino boxeolariak Soraluzen irabazi zuen

**E.B.** Ermuan garaipenetik gertu gelditu ondoren, Soraluzeko boxeojaialdian besoak altxatu zituen Jokin Merino boxeolari eibartarrak. Anderson Steven izan zuen aurkari 61 kilora artekoen mailan eta Sorabox taldekoa nagusi izan zen.

Ikusmira sortu zuen Soraluzeko boxeojaialdiak eta 400 lagun inguru elkartu ziren pilotalekuan. Guztira, hamahiru borrokaldi jokatu ziren, sei Euskadiko Txapelketakoak eta zazpi osteko jaialdikoak, eta boxeoaz gozatzeko aukera paregabea izan zen.



## Eskola Kirolaren 2026/27 ikasturteko programa jakitera eman dute

**E.B.** Eibarko Eskola Kirolak 2026-2027 ikasturterako eskaintzaren berri eman du. Helburua argia da: hurrek kirola euskaraz, lagunartean eta modu aktiboan bizitzea, lehia hutsetik harago doan esperientzia baten bidez.

Aurreko astean Eskola Kiroleko koordinatzaileek esan ziguten bezala, datorren ikasturtean hiru programa nagusi eskainiko dituzte, adin eta behar ezberdinetara egokitu-ta: Jolas Hezi (LH1 eta LH2koen-

tzat), Multikirola (LH3-6koentzat) eta EKE (Eskola Kirol Egokitua) programa inklusiboa.

Eskola Kiroletik aurreratu dutenez, familiek ekainaren hasieran jasoko dute informazio zehatzagoa eta une horretan zabalduko dute izena emateko epea.

Informazio gehiago behar izanez gero, [www.eibareskolakirola.eus](http://www.eibareskolakirola.eus) webgunea kontsultatu daiteke, 663 006 183 telefonora deitu edo alboko QR kodea eskaneatu.



## Uxue Gutierrezek beste zilarrezko domina bat irabazi du, oraingoan Legazpin

**E.B.** Maiatzaren 9an, Legazpin jokatutako III. Nazioarteko Infantil Judo Txapelketan parte hartu zuen Kalamua judo taldeko Uxue Gutierrezek, eta berriro ere podiumera igotzea lortu zuen.

Euskadiko Txapelketan -44 kiloko kategorian zilarrezko domina lortu berri zuen judoka armaginak, baina oraingo honetan erronka berria izan zuen aurrean: -48 kiloko mailan debutatzea, datorren denboraldira begira pisu berrira egokitzen hasteko.

Lehiaketa sendoa egin zuen Uxuek. Hasierako ligaxkan lehen borroka irabazi zuen, eta bigarrena galdu arren, kanporaketetarako sailkatzea lortu zuen. Bertan, beste garaipen batekin finalerako txartela eskuratu zuen. Azken neurketan ezin izan zuen aurkaria gainditu, baina zilarrezko domina poltsikoratu zuen berriro ere, progresio bikaina berretsiz.

Klubetik nabarmendu egin dute judokak azken hilabeteetan izan duen bilakaera. Datozen hilabeteetan hainbat txapelketatan par-

te hartzen jarraituko du, hurrengo denboraldia prestatzen eta aurreko lortutako emaitza handiak are gehiago hobetzeko helburuarekin.

### Gaztetoen txanda eta matrikulazioa

Bestalde, Kalamua klubeko gaztetoen ere hitzordu ugari izango dituzte aurretik. Benjamin maila azpitik alebinitara arteko judoek Zumarragan lehiatuko dute bihar, Irungo torneora joango dira maiatzaren 23an eta Ondarroan izango dute azken hitzordua ekainaren 6an. Klubaren esanetan, aukera bikainak izango dira txikienek tamania beste klubetako judoekin partekatzeak eta esperientziak gozatzeko.

Horrez gain, Judo Club Kalamuak jakinarazi du 2026/2027 denboraldirako matrikulazioa zabalik dagoela. Kluba azpimarratu nahi izan du kirola homologatutako zentroetan eta tituludun entrenatzaileekin egitearen garrantzia, tamian ikasten diren balioak bizitzako borroketarako ere baliagarriak baitira.

## Urki Day ospatuko dute bihar CD Urki taldekoek

**E.B.** Ohorezko Erregional mailan jokatzen duen CD Urkik Oartzun jasoko du bihar, 12:35ean, Unben, etxean jokatuko duen azken partidana. Ondoren, Urki Day delakoa egingo dute, 23:00etatik aurrera, Hator tabernan.



## Eskubaloi Eguna ospatuko da asteburuan

**E.B.** Gaur arratsaldean hasiko da Eibar Eskubaloiak prestatutako egitaraua. 18:00etan irekiko dute txosna Untzagan eta, handik gutxira, jaiaren hasiera ofiziala egingo dute klubeko taldeei aitortza eginez. Gauean, DJ Aguss arduratuko da giroa berotzeaz.

Bihar, goizean txosna berriz zabaldu ostean, 14:30ean kalejira egingo dute Errebalerraino, eta ondoren bazkari herrikoia ospatuko dute bertan. Arratsalde-gau partean, musikak hartuko du protagonismoa, Urkari eta Slide taldeen kontzertuekin.

Domekan, berriz, eskubaloiak berak hartuko du lehen lerroa. Goizeko 10:00etatik aurrera, eskubaloi eskolako partidak jokatuko dira Untzagan, gaztetoek pistan euren trebetasuna erakutsiz. Eguerdian zozketa egingo dute eta 15:00etan emango diete amaiera asteburuko festari.

# “Aurten, batez ere, giza faktorearen saria irabazi dugu; familia osatu dugu eta hori ordainezina da”

MADDI SOLA ETA ADARA ALFONSO • Eibar Rugby Taldea



Eibar Rugby Taldeak Erreginaren Zilarrezko Kopa irabazi zuen maiatzaren 1ean. Aldaketa handiekin hasi zuten denboraldia eta, hasieran kostatu zitzairen arren, oso maila onean heldu dira sasoi amaierara, Esan daiteke, denboraldia motz geratu zaiela. Beraz, itxaropentsu begiratzen diote hurrengoari.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

## **Nolakoa izan zen finala? Nola bizi izan zenuten?**

MADDI: Emozio handia zegoen guztion aldetik. Denboraldi nahiko gogorra izan da: jende berria, entrena-tzaile berriak... eta pastelari ginga jarri nahi genion. Entrenamenduekin nahiko prozesu gogorra bizi izan dugu eta dena ondo atera zedin nahi izatearen emozioa genuen, gozatu ahal izatearen grina. Ez zen irabaztea, gozatzea baizik, merezi genuelako.

## **Finalerdia nahiko aise irabazi zenuten, konfiantzaz joan zineten finalera?**

ADARA: Tira, finalerdia oso parekatua izan zen azken 10-15 minutuetara arte. Errugbian hor zabaltzen dira aldeak normalean. Beraz, ez ginen konfiantza gehiegirikin joan finalera. Egia esan talde honek aurten izugarri landu du umiltasuna. Proiektu berria hasi genuen, non kategoria ezberdinetako jendea etorri zen: duela bost urte agian errugbian jokatu ez zuen jendea, gimnasioa egin ere egin ez zuen jendea... Beraz, ez ginen hain an-bizitsuak proiektuarekin. Aurtengoa gehiago zen bizirauteko eta ikusteko urtea, eta oso bilakaera ona izan dugu. Taldeak oso ondo konektatzea lortu du.

## **Denboraldi hasieran martxa hartzea kostatu zitzaizuen. Zalantzarik izan al zen?**

MADDI: Hasieran gogorra izan zen, ez baikin ko-

katzen, batez ere taldean aspalditik genbiltzanak. Ez genuen taldea ondo ikusten, atzerapauso bat emateko beharra ikusten genuelako gero, luzera begira, nahiko aurrerapauso handia emateko. Baina hasieran gogorra izan zen hori, zure espazioa aurkitzea. Entrenatzaileekin ere zaila zen hasieran, guk gauzak modu lehiakorragoan ikusten genituen, irabazi nahi baikenuen, goi mailako errugbia egitea... Baina noski, hori ez zen errealitatea. Orduan, oinak lurtean jarri genituen, apaltasuna izan genuen eta egokitu egin ginen.

## **Aldaketa hori denboraldi bakarrean egitea lortu du-zue. Zerk egin zuen klik ekipoen?**

MADDI: Hainbat faktore izan dira. Adibidez, entrena-tzaileekin asko bildu gara. Gero, niretzat mugarrri izan zen gauza bat gertatu zen, taldekide batek osasun-ez-behar bat izan baitzuen. Albiste txarra izan zen, kolpe indartsua, gero ondo joan da dena, baina mugarrri izan zena guztientzat. “Hemen gaude erabaki dugulako, ez gaitu inork behartzen, eta badago jendea jokatu nahi eta ezin duena”, esaten genuen. Orduan, martxa bat gehiago sartu genuen entrenamenduetan, gimnasioetan eta partidetan. Hortik gora joan ginen. Elkartuago egon ginen, eta zintzotasun eta babes gehiago egon zen gure artean.



Maddi Sola, Adara Alfonso eta taldekideek ederki ospatu zuten orain dela bi aste lortutako Zilarrezko Kopa.



**Gutxiagotik gehiagora joan zarete eta, lortu ez zenuten arren, igotzeko borrokatu zenuten. Hori ikusita eta Kopako titulua lortuta, denboraldia motz geratu zaizuen sentazioa ematen du.**

ADARA: Aurten, batez ere, giza faktorearen saria irabazi dugu. Familia sortu dugu eta hori guretzat ordainezina da. Ez dugu final bat jokatu, baina bai finalerdi bat. Nire ustez, une honetan igotzeko play-offa jokatu izan bagenu, Erreginaren Kopa jokatu dugun modua ikusita, uste dut gerra pixka bat gehiago emango genuela, baina momentu horretan taldea ez zegoen prest, oraindik jendea bere postutik kanpo zegoelako. Bitxia da, baina, egia esan, lortu dugun taldea, Erreginaren Kopa hau irabazteko talde ideala, bi aste lehenago osatu dugu, hemen lagunarteko bat jokatuz. Ikusi genuen jokalaria batzuek errendimendu hobea ematen zutela beste postu batean eta hor jokatu dituzte azken partidak. Bestetik, modu kolektiboan jokatzen dugula ere esan behar da, ez indibidualki.

**Datorren denboraldirako, argi duzue zer indartu behar duzuen?**

ADARA: Bai, taldea indartzeko urtea izango da. Izan

ere, azkenean, Eibarren urtez urte izan dugun arazoa da ez genuela lortu aurten lortu duguna, hau da, familia bat izatea.

MADDI: Datorren urtera begira beste lasaitasun bat dugu, oinarri bat egin dugu-eta. Familia bat garela sentitzen dugu eta jendeak ez duela joan nahi edo behintzat ez duela taldea hain erraz utziko. Bai uste dut pixka bat gehiago sustatu beharko dugula harrobiaren gaia.

ADARA: Azkenean, Eibar herri txikia da nolabait esateko eta zaila da errugbian jokatu nahi duen jendea aurkitzea. Hala ere, harrobiko 4-5 jokalaria oso ondo dabilta.

**Errugbiak agian ez du futbolak Eibarren duen zaletasuna, baina klubaren eta zaleen babesaren sentitzen duzue?**

MADDI: Ni Ordiziatik nator eta beti ikusi dut klubaren arteko aldea. Nire ustez, Eibarrek apustu handia egin du emakumezkoen errugbiaren alde. Bere apustu nagusia nesken taldea da, gainerako klubetan ikusten ez dena edo ezberdina dena. Orduan, aukera handi bat da jokalaria gisa hazteko, zerbait garrantzitsuen parte zarela sentitzeko eta zure lekua duzula sentitzeko.

**ELKARRIZKETA OSOA: WWW.ETAKITTO.EUS**

JON MARTINEZ • Abeslaria eta musikaria

# “Eszenatokira igotzen naizenean beste mundu batean sartzen naiz”

Eibarko 22 urteko Jon Martinez “Jonmar” abeslariak Ztanda saioaren hirugarren edizioan parte hartuko du. Ingeniaria izanik ere, musikarekiko pasioak eraman du ETB1eko talent show-era, eta aitortu du oholtzan sentitzen duen “subidoia” dela gehien erakartzen duena.

Testua

IRATI ALVAREZ  
MALAXETXE BARRIA

**J**on Martinez, artistikoki 'Jonmar' izenez ezagunagoa, Eibarko gazte abeslaria da eta “Ztanda” saioko hirugarren denboraldiko lehiakideetako bat. 22 urte ditu, ingeniaria da ogibidez, baina musikak gero eta leku handiagoa hartu du bere bizitzan. Korutik txarangara, eta handik telebistako oholtzara egin du jauzia. Lehenengo galan Izarorekin batera “Behe klasekoa” abestia interpretatu ostean, oso harrera beroa jaso du publikoaren aldetik. Telebistaren mundua “beste dimentsio” bat dela dio, eta argi dauka: musika ez da hobby hutsa beretzat.

## Hasteko eta behin, Jonmar, aurkeztu zeure burua.

Jon Martinez naiz, eibartarra, eta 22 urte ditut. Ingeniaritza ikasi dut eta horretan egiten dut lan, baina benetan gustatzen zaidana musika da.

Egia esan, 16 urte bete arte ez nuen muskarik egiten. Urte hartan atzerrira joan nintzen ikastera, eta han izan nuen musikarekin lehenengo harremana. Asko gustatu zitzaidan, eta Euskal Herrira itzuli nintzenean koru batean sartu nintzen. Ondoren, perkusioa ikasten hasi nintzen, eta horri esker Ustekabe

txarangan sartu nintzen. Horrela iritsi naiz gaur egun nagoen lekura.

## Zein instrumentu jotzen dituzu txarangan?

Ustekaben txindatak jotzen ditut, baita bonboa eta kaxa ere —uzten didatenean behintzat—. Oro har, perkusioarekin ibiltzen naiz. Gainera, tronboia ikasten hasi naiz Beñat Etxaberekin, txaranga-ko beste kide batekin.

Etorkizunean pianoa edo gitarra jotzen ere ikasi nahiko nuke. Azkenean, abeslari batek bere musika sortzeko instrumenturen bat behar duela uste dut. Baina tira, pixkanaka-pixkanaka; gauza askotan nabil aldi berean.

## Abeslari gisa aurkeztu zara “Ztanda” telebista saiora. Nolatan erabaki zenuen parte hartzea?

Nahiko saltsazalea naiz (barreak). Programaren lehenengo edizioaren berri izan nuenean, “talent show” berria izango zela entzun, eta izena ematea erabaki nuen. Une hartan ez ninduten aukeratu, baina produkzioak esan zidaten nire ahotsak eta abesteko moduak arreta eman zietela. Horregatik, nire kontaktua gordeta utzi zuten.

Iaz ezin izan nuen parte hartu Erasmus programan nengoelako, baina aur-



Jonmar, Ztanda saioko parte-hartzailea.

**“Etorkizunean pianoa edo gitarra jotzen ere ikasi nahiko nuke”**

ten berriro idatzi zidaten. Casting-a egin nuen eta, azkenean, hartu egin ninduten.

**Nolako giroa dago saio barruan?**

Topikoa dirudi, baina benetan familia bat bihurtu gara. Uste dut casting oso ona egin dutela eta profil oso ezberdin baina aldi berean oso bateragarriak elkartu dituztela.

Artista handiak daude bertan, eta oso talde polita osatu dugu. Gala bakarra grabatu dugu oraingoz, baina dagoeneko badakit betirako maitatuko dudan jendea ezagutu dudala.

**Zer izan da gehien harritu zaituena?**

Telebistaren mundua erabat desberdina da. Nire kasuan, oholtzara igotzen naizenean erabat disoziatzen dut. Amaitutakoan ez naiz gogoratzen zer gertatu den, zer abestu dudan edo nola egin dudan. Beste mundu batean sartzen naiz.

Azken batean, ni ingeniaria naiz eta nire egunerokoa oso bestelakoa da, baina eszenatokira igotzen naizenean zoratu egiten naiz pixka bat. Estimulu asko daude, emozio handia... “subidoi” moduko bat da, eta asko gustatzen zait.

**“Eibarren dagoen talentua ez da edonon aurkitzen”**

**Zer espero duzu datozen saioei begira?**

Uste dut ahotsaren aldetik badudala nolabaiteko kontrola. Orain gehien landu behar dudana eszenatokian egoten ikastea da: gorputz-adierazpena, presentzia, lasaitasuna... Aurretik oso bide polita dudala uste dut.

**Bigarren galari begira, zerbait aurreratu eman dezakezu?**

Esango nuke ia eskusiba dela, baina Betagarriren “Euri tanta bakoitzean” abestuko dut Ikerrekin batera. Ahots ikaragarria dauka, beraz oso pozik nago egingo dugunarekin.

**Amaitzeko, zer mezu zabaldu nahiko zenuke?**

Eibartar guztiei esango nieke telebista piztu eta “Ztanda” ikusteko. Ostiralero izango gara ETB1en, 21:00etan.

Eta, bide batez, oso harro egoteko: Eibarren dagoen talentua ez da edonon aurkitzen.


ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskeraz

# ZER DA ERRADIOAKTIBITATEA ETA ZERGATIK DA KALTEGARRIA

Erradioaktibitatearen eta energia nuklearraren eraginak ulertzeko, oinarritik hasi beharra dago: argiak eta materiak elkarri eragiten diote. Zelan? Argiaren energiaren eta materia-motaren arabera. Gure gorputzei dagokienez, energia nahiko altuko izpiak dira nabaritzen ditugunak. Usteak uste, energia txikiko argiak igarri ere egin barik zeharkatzen gaitu, hala nola irrati-uhinek, 5G telekomunikazioek, sukaldeko mikrouhinek...

Hortik gora, badago eraginik: argi infragorriak eta ikusgaiak berotu egiten gaituzte, eta ultramoreak azala beltzarandu. Gorago, eragin kaltegarriak hasten dira, X eta gamma izpiei lotutakoak. Horiei erradiazio ionizatzaileak deritze, atomoak ionizatzen (elektroiak kentzeko) gaitasuna dutelako.



**1. irudia:** energia baxuko argiak (eskuinean) ez digu kalterik egiten; bai ordea, energia altukoak (ezkerrean). fisikoak: Eguzki-orbanak.


Gainera, gamma izpiak atomoen nukleoetara daude. Partikula subatomikoak atomoak baino txikiagoak dira, esate baterako, neutroiak, elektroiak, positroiak, alfa partikulak (bi protoi eta bi neutroi), nukleo-zatiak...

Baina, nondik ateratzen dira partikula eta erradiazio ionizatzaile horiek? Funtsean, elementu kimiko guztien nukleoek badute ezegonkortasun pittin bat, eta, oso noizean behin, eraldatu eta partikulak edo argi izpi oso energetikoak botatzen dituzte, prozesu nuklear espontaneo bidez. Horixe da erradioaktibitatea.

Erradioaktibitate naturala Lurretik edo espaziotik (izpi kosmikoetatik) iristen zaigu. Bestalde, prozesu horiek kontrolatu eta areagotu egiten ditu gizakiak, izan energia lortzeko, terapia medikoetarako edo bomba nuklearrak sortzeko. Horri erradiazio antropogenikoa deritzen.

Jakina da erradioaktibitatea gure eta ingurumenaren osasunarentzat kaltegarria dela: hortik erradiografietan eta erradioterapietan babestu eta dosia zaindu beharra, zentral nuklearretako hondakinak lurperatu eta berunez estali beharra, hegazkin-pilotuek eta astronautek esposizio-denbora mugatu beharra, istripu nuklearren larritasuna, eta, zer esanik ez, arma nuklearren existentzia bera. Salbuespen nagusia erradioterapia litzateke, tumore-zelulak hiltzeko ere erabil baitaiteke erradiazio ionizatzailea.

Nolanahi ere, kalte hori kopuruaren eta erradiazio-motaren arabera da. Izan ere, nukleo atomiko batek baditu hainbat modu eraldatzeko (desintegratzeko), eta elementu bakoitzak modu jakin batean desintegratzeko joera du: alfa, beta, gamma, fisioa... Igorritako partikula edo izpi bakoitzak, bere ezaugarrien arabera, modu batean edo bestean eragiten digu, zelulekin duten elkarrekintza desberdina da eta.



**2. irudia:** nukleo bakoitzak (protoi eta neutroi kopuruek zehaztuta) desintegratzeko aukeratzin duen bidea. Beltzez daudenak egonkortzat hartzen dira, oso oso inprobablea baita eraldatzea.

Orduan, zer gertatzen da zehazki ospitalean, hondakin erradioaktiboz kutsatutako ingurune batean edo gerra nuklear batean erradiazioa gugana heltzean? Hasieran esan bezala, energia altuko argi edo partikula horiek materiarekin elkarrengaitzen dute, kasu honetan, gure zelulekin. Bertako lotura kimikoak hausten dituzte, hau da, molekular apurtu. Horrek hainbat ondorio izan ditzake: batetik, nabaritu ere ez egitea; bigarrenik, zelulek beren burua konpontzeko gaitasuna praktikan jarri eta haustura konpontzea; hirugarrenik, molekula horrek defektuarekin aurrera egitea DNAREN kasuan, batik bat; eta, azkenik, zelula hiltzea.

Bistan da erradiazioa jasotzean ez genukeela izpi edo partikula bakarra jasoko, denboran zehar banatutako multzo bat baino. Horrenbestez, litekeena da zelula ugaritara iristea eta denetariko erreakzioak izatea. Oro har, erradioaktibitateak eragindako gaitzak bitan sailkatzen dira: deterministak eta estokastikoak.

Gaitz deterministak erradiazio handia denbora laburrean (eztanda batean, kasu) hartuz gero sortzen dira. Ikusi duzue Chernobyl telesaila? Gogoan

duzue zer erreakzio izan zuten zentralera joandako suhiltzaileek? Kasu horretan, jasotako dosia hain da handia eta azkarra non zelulek ez baitute astirik euren buruak konpontzeko, eta asko eta asko hil egiten dira. Irradiazio-sindromea deritzo, eta hiru fase ditu: lehen 48 orduetan ohikoak dira gorakoak, beherakoak, buruko mina, takikardiak, loezina, ezinegona... Ondoren, aldi latentea dator suhiltzaileak ospitalean kartetan jolasten: aste gutxi batzuek ez dago ia sintomarik. Azkenean, amaiera heltzen da: hemorragiak, deshidratazioa, konbulsioak, koma...



**3. irudia:** Chernobylgo suhiltzaileak irradiazio-sindromeak jota hil ziren. Ezkerrean, fase latentean, kartetan jolastean. Eskuinean, azken fasean, hil hurren.

Bestetik, ez hain itsusiak hasiera batean, gaitz estokastikoak daude. DNAREN konpondu gabeko defektuen ondorioz sortzen dira. Estokastikoak dira erradiazioa pixkanaka eta luzaroan jaso duen batek probabilitatea daukalako gaitz horiek garatzeko, baina ez da ziurra. Gaitz hauek gehienbat minbiziari lotzen zaizkio (mota batekoa edo bestekoa, defektudun zelulen organoaren arabera), eta erradiazioa jaso eta urte askora ager daitezke. Horiek jasateko aukera dute instalazio nuklearretako langileek, astronautek eta istripu nuklear baten ondorioz kutsatutako eremu batean bizi direnek, besteak beste.

Horrekin guztiarekin ez dut inor ikaratu nahi. Erradioaktibitatea ez da ona edo txarra. Bere aplikazioak izan daitezke onuragarriak edo kaltegarriak, gauza guztienak moduan. Baina irudipenak dut dezente hitz egin izan dela energia, terapia eta arma nuklearrei buruz, benetan zer diren edo zer eragin diezaguketean jakin barik. Horren guztiaren gainean argi (onuragarri) apur bat ematea da helburua.



## “Horma” liburuak agurtu ditu Harixa Emoten saioak

**S.H.** Marlen Haushofer idazle austriarrak 1963an idatzi eta Naroa Zubillagak euskarara itzulitako “Horma” lana aztergai izan zuten martitzenean “Idazlearekin Harixa Emoten” saioan. Ikasturteko azkeneko literatura tertulian irakurle-taldeko kideek aukera izan zuten liburuari buruzko galderak eta iruzkinak egiteko. ...eta kitto! Euskara Elkartek eta Juan San Martin liburutegiak elkarlanean antolatu eta Ainhoa Aldazabalek gidatzen dituen saioak udazkenean itzuliko dira liburu-eskaintza berriarekin.



## Hasi dira sanjuanetako danborradetarako entseguak

**S.H.** Aurreko astean hasi zituzten entseguak aurtengo San Juan jaietan, haurren eta helduen danborradan parte hartuko dutenek. Aurten hainbat aldaketarekin hasi dituzte entseguak: Errebal Plazia eraikinean elkartuko dira, astean birritan (eguzten eta eguenetan), eta ez Bittor Sarasketa kaleko lokaletan, orain arte egiten zuten bezala. Umeen entseguak 19:15ean hasiko dira eta, ordubetez praktikatzan aritu eta gero, helduen txanda izango da, 20:15ean. Orain arte 60 bat umek baino ez dute izena eman; beraz, haurren bat gehiago animatuz gero, ongietorria izango da.



## ‘Belerraastro’ egingo dute Beleko tabernakoek domekan

**S.H.** *Belerraastro* izeneko ekitaldia antolatu dute Beleko tabernakoek domekarako, maiatzaren 17rako. Eguerdiko 12:00etatik aurrera azoka zabalduko dute, gonbidatu hauekin: Etiketa Beltza, Eskuarte, Gigil Design eta YK Riders. Antolatzaileek gonbidapen irekia egin dute: “Artisautza, bigarren eskuko arropa, artea zuzenean, pintxoak, marianitoak, musika..., giro ezinhobea izango dugu!”



## Argazkilaritza Maiatzeaneko erakusketak zabaldu dituzte

**S.H.** Aurreko asteko barixakuan inauguratu zituzten Argazkilaritza Maiatzeaneko erakusketa guztiak. Portalean, Jaime de Pradoren lanekin batera, Eugenio Fieni-ren *Nenet herria*. *Bizitza*. *Artikoan*, Angel J. Sanchezen *Babel*, eta Argizaiola Sarira aurkeztutako 35 argazki bildu dituzte Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek. Horrez gain, Arrate Kultur Elkartearen Topaleku aretoan, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartek antolatzen duen Nazioarteko Gipuzkoa Sariaren bildumaren erakusketa ikusi daiteke. Eta, Portalea tabernan, Virginia Arakistain eta Bakarne Elejalde taldeko kideen Lanzaroteko paisaiak daude ikusgai.



## Urban sketch topaketa egingo da bihar goizean

**S.H.** Eibarko Artisten Elkarteak antolatuta, bihar (zapatua, hilak 16) hiri-zirriborroak marrazteko topaketa egingo da. Egun osoko jarduera izango da: tren geltokitik abiatuta, 10:00etan hasiko dira marrazten; ondoren, Ibarkurutzeko iturria, Coliseo antzokiaren ingurua, eta Errebal plazako merkaturia margotuko dituzte parte-hartzaileek eta, 14:00ak aldera, Untzagako jubilatuen etxean bazkalduko dute. Arratsaldean, 16:00etan, Eibarko Armagintzaren Museora joango dira bisitan (doan), eta Eibarko Udalaren laguntzari esker, bertan marrazkiak egiteko aukera izango dute. Jardunaldia 18:00etan amaituko da, talde-argazki batekin. Antolatzaileek adierazi digutenez, “dagoeneko 30 bat lagunek eman dute izena”, baina, azken orduan norbait animatuz gero, parte hartzeko aukera izango du.



## Merienda eta solasaldia Ipuruan Gazte Safarekin

**S.H.** Maiatzaren 22an, barixakuan, merienda-tertua egingo dute Ipuruako Merkatu Plazan, Gazte Safa elkartearen eskutik. Pare bat orduko iraupena izango du saioak, 17:00etatik 19:00etara.



## Iñaki Gabilondoren hausnarketek bete dute Armeria Eskola

**I.A.** Ikasten elkarteak antolatuta, Iñaki Gabilondok hitzaldia eman zuen egunean, maiatzaren 14ean, Eibarko Armeria Eskolan. Gabilondoren bisitak ikusmin handia sortu zuen azken egunotan, eta aretoa bete egin zen. “Zortzigarren solairutik” saioan, kazetari beterranoak gaurkotasunaz, gizarteaz eta bizitzaz hausnartu zuen, bere ibilbide luzeko esperientziatik abiatuta.

## “Eskalerillas, etxepe bat borrokan” emanaldia Kulturalean

**S.H.** Eibarko Asanblada Antifaxistak "Eskalerillas, etxepe bat borrokan" dokumentalaren emanaldia antolatu du gaur barixakurako, 18:00etan Arrate Kultur Elkartearen proiektioa amaitu eta, jarraian, bertan ikusitakoari buruzko solasaldia egingo da. Antolatzaileek azaldu dutenez, “Pasaian dagoen Escalerillaseko bizilagunek orain dela hiru urte jakin zuten



Portu agintaritzak kaleratu egin nahi zituela, etxeak botatzeko, eta merkantziak garraiatzeko trenbide-sare bat egiteko. 40 urte baino gehiago daramatzate bertan bizitzen, eta hasieratik azpimarratu dute bertan geratu nahi dutela”. Herritar guztiak gaurko saiora gonbidatu nahi dituzte: “Gerturatu familia hauen errealitatea gertuagotik ezagutzera, eta baita gaur egungo etxebizitzaren errealitatea hobeto ezagutzera ere”.



# Maiatzak 15 - Maiatzak 21

## BARIXAKUA 15

### DOKUMENTALA

**18:00** "Escalerillas, etxepe bat borrokan" dokumentalaren emanaldia eta, ondoren, solasaldia. Eibarko Asanblada Antifak antolatuta. Arrate Kultur Elkarte.

### OPERA


**19:30** Gaetano Donizetti-ren "Lucia di Lammermoor" operaren proiektzioa. Vienako Estatu Opera (2019). 9 euro (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

### KONTZENTRAZIOA

**19:30** 'Global Sumud' flotillari babesa adierazteko kontzentrazioa, Eibar Palestinarekin herri ekimenak antolatuta. Untzaga.

### EIBAR MODAN

**20:00** Udaberriko moda desfilea, Eibarko Dendarien Elkartearen eskutik. Sarrera librea, toki guztiak bete arte. Errebal Plaza.




### ESKUBALOI EGUNA

**18:00** Eibar Eskubaloiairen txosna zabaltzea. **18:30** Klubeko taldeei aitortza. **20:30** Kontzertua: DJ Agus. Untzaga.

## ZAPATUA 16

### TOPAKETA

**10:00** Urban sketch topaketa. Antolatzailea: Eibarko Artisten Elkarte. Hasiera: Estaziño kalea (tren geltokia).



### JARDUNALDIA

**11:00/13:00** 'Armeria Eskola ezagutu' ate irekien jardunaldia. Armeria Eskola.

### ESKUBALOI EGUNA

**10:00** Eibar Eskubaloiairen txosna zabaltzea. **14:30** Kalejira, Errebalera. **15:00** Herri-bazkaria. **20:00** Kontzertua: Urkari & Slide. Untzaga.

## DOMEKA 17

### ESKUBALOI EGUNA

**10:00** Eibar Eskubaloiairen txosna zabaltzea. Eskubaloi eskolakoen partiduak. **14:00** Zozketa. **15:00** Jaia-aren amaiera. Untzaga.

### BELERRASTRO

**12:00** Artisautza, bigarren eskuko arropa, artea zuzenean, pintxoak, mariantokak, musika... Beleko taberna.

## ASTELEHENA 18

### BERTSOLARITZA

**18:00** Umeen bertso jaialdia. 3 euro. Coliseo.

### KANTU-SAIOA

**19:00** "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkarte.

### HITZALDIA

**19:30** "Atzerritar pertsonen ezohiko erregularizazioa 2026an. Baldintzak, epeak eta nola eskatu", informazioa emateko hitzaldia, PSE-EEren eskutik. Sarrera librea. Eibarko Herriaren Etxea (Isasi, 2, 2. solairua, areto nagusia).

## MARTITZENA 19

### DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO ANTZERKIA

**15:00** "Alai familiar" (Lasala konpainia). Coliseo.

### HERRITU

**18:30/19:30** Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

## EGUAZTENA 20

### IPURTERRE

**10:00** Ipurterre ipuin lehiaketako irabazleei (LH eta DBHko ikasleak) sariak banatzea. Antolatzailea: ... eta kitto! Euskara Elkarte. Coliseo.

### AGURTZEN

**18:00/20:00** Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-aren eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

## DANBORRADA

**19:15** Sanjuanetako danborradarako entsegua (haurrak). **20:15** Helduen entsegua. Errebal Plaza (eraikin barruko lokaletan).

## EUSKAL JAIA

**19:00/21:00** Larrain-dantza errepasoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkarteko bazkideek dohainik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.

## EGUENA 21

### HITZALDIA

**19:00** "Lourdes Iriondo bide-urratzaile", Alex Gurruzagaren eskutik. Antolatzaileak: Eibarko Klub Deportiboa eta Eibarren Akebai. Eibarko Klub Deportiboa.

## FRAKUSKETAK

### Maiatzaren 15era arte

"Indusen ibilbideak: Himalaiatik Karatxira. Pakistan, begirada sozial bat", Igone Mariezkurrenaren argazkiak. Andretxea.

### Maiatzaren 17ra arte

"El Trust Eibarres S.L" erakusketa, enpresaren mendeurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

### Maiatzaren 31ra arte

Argazkilaritza Maiatzean Eugenio Fieni-ren "Nenet herria. Bizitza Artikoan"; Jaime de Prado; Angel J. Sanchez-en "Babel"; eta Argizaiola. Portalea. SFG Trofeo Gipuzkoa. Topaleku. Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain: "Tenerife". Portalea taberna.

## ZINEA COLISEO



**“El beso de la mujer araña”**  
 DRAMA MUSIKALA

2025/AEB/128'  
 Zuzendaria: Bill Condon  
 Aktoreak: Jennifer López, Diego Luna, Tonatiuh Elizarraraz, Bruno Bichir  
 Homosexualitatea.  
 Adiskidetasuna. Remake

### 1 ARETOA

- 16an: 17:00
- 17an: 17:00

### ANTZOKIA

- 16an: 17:30, 22:30
- 17an: 20:00
- 18an: 20:30



**“Couture. Alta costura”**  
 DRAMA

2025/Frantzia/106'  
 Zuzendaria: Alice Winocour  
 Aktoreak: Angelina Jolie, Anyier Anei, Ella Rumpf  
 Istorio gurutzatuak. Moda.  
 Gaixotasuna

### 1 ARETOA

- 16an: 19:45, 22:30
- 17an: 20:00
- 18an: 19:30

### 2 ARETOA

- 16an: 17:00



**“Kill Bill. The whole bloody affair”**  
 AKZIOA. THRILERRA

2004/AEB/275'  
 Zuzendaria: Quentin Tarantino  
 Aktoreak: Angelina Jolie, Anyier Anei, Ella Rumpf  
 Mendekua. Arte-martzialak.  
 Krimena

### 2 ARETOA

- 16an: 19:430
- 17an: 17:00
- 18an: 19:30



**“Los legendarios”**  
 ANIMAZIOA.

2026/Frantzia/92'  
 Zuzendariak: Guillaume Ivnerel  
 Abenturak. Fantasia

### ANTZOKIA

- 16an: 17:00
- 17an: 17:00



## Bitxorio Gandiaga Artetxe

1958/09/07 - 2026/05/07

Familia haundixan hazitako itxurretarra,  
 Zesta punta jokatzten Floridan atzerritarra,  
 bere bihotzeko Isabelentzat aparteko senarra,  
 Leire eta Adrianaren aitatzxo edarra  
 eta Niko txikiaren aitxitxa maite bakarra.  
 Izerdi handiz bihurtu zinen baserritarra  
 Urrintxoko ortu ta larretan beti zegoelako einbeharra.  
 Zure joatea danontzat izan da notizia oso txarra  
 baina guk ez zaitugu ahaztuko eta  
 beti gogoratuko dogu zure irrifarra.



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MIKEL!**  
Domekan, hilak 17,  
9 urte beteko dozuz  
eta. Musu eta be-  
sarkada haundi bat  
famelixa guztixaren  
partez.



Zorionak **ANIK!**  
Maiatzaren 14an  
9 urte bete dozuz  
eta... ospatzeraaaa!  
Patxo haundi haundi  
bat etxekuon partez.



Zorionak **AITOR!**  
Atzo 8 urte bete  
zenduazen eta!  
Jarraitu orain arte  
bezain alai! Besar-  
kada haundi bat  
famelixa guztixaren  
partez.



Zorionak **ANE** eta  
musu haundi bat  
famelixa osuaren  
partetik!!



Zorionak **EDER!**  
Bihar 9 urte beteko  
dozuz, txapeldun!  
Musu haundi  
bat. Asko mai-  
te zaittugu.  
Ireni, aita eta ama.



Zorionak **JULEN!**  
Astelehenian 10  
urte egin zendu-  
zen eta. Txapel-  
dun!!! Etxekuen  
partez.



Zorionak **LUCIA!**  
Gaur, maiatzak 15,  
10 urte betetzen  
dozuz eta. Besarka-  
da erraldoia. Asko  
maite zaittugu.



## Mª Isabel Alberdi Zinkunegi

**3. URTEURRENA**  
2023/05/14

Beti gure bihotzean  
eta gogoan,  
ez zaitugu inoiz  
ahaztuko.

ASKO MAITE ZAITUGU  
- ETXEKOAK -





## BITXORIO

2026/05/07

Zure bizipoza eta  
oroitzapena beti izango  
dira gure artean.

-Mandiola Laguntaldeko  
kideak eta lagunak-



# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Benidorm. Udarako zein negurako etxebizitza alokatzen da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Kanpoko nahiz barruko igerilekua. Gara-jea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Juan Gisasola kalean, probaderoaren azpian. 686633523.

## 4. LANA

### 4.1 Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Asteburuetan ere. 602715786 (Dania)
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Asteburuetan ere. 688740201 (Gloria)
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko edota gabaz nagusiak zaintzeko. 613314603.
- Emakumea eskaintzen da etxe-ko lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako eta umeak zaintzeko ere. 614671434.

- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Berehala lan egiteko prest. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko, baita asteburuetan ere. Berehala lan egiteko prest. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da etxe-ko lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako ere. 688 74 02 01
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxe-ko lanetan jarduteko. 642852854.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614339369.

### 4.2. Langile bila

- Fisioterapeuta eta estetiziena behar da Eibarko ileapaindegi batean. 943208125.
- Ermuko hortz klinika batek higienista/auxiliarra behar du, lanaldi erdirako. Bidali zure CV hortzklinika.4@gmail.com
- Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta laguntzeko. Beharrezkoa paperak eta titulua edukitzea. Interna bezala edo asteburuak. Esperientzia baloratuko da. 627307168.
- Gastesi hortz-klinikan odontologo bila gabilta. Interesatuak, bidali curriculum mesedez: clinica@gastesidental.es

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Behin erabilitako Magasa emakumezko baserriar jantzia salgai prezio erdian. 14 neurria. 658714437

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA



**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.theleceer.com

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
info@cristaleriaacha.com eta faxa:  
943 203 903

## AROTZAK



**ulmar**  
S.L.  
metalczko  
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko  
**AROTZEGIA**  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK



**IÑAKI**  
pinturak eta lurrak  
Tel. 647 902 208  
Bidebarrieta, 21 - behea

## GARBIKETAK



**Garbihome**

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal  
eta komunitateetarako garbiketa  
zerbitzuak eskaintzen ditugu

☎ 642 456 472  
✉ info@garbihome.com  
🌐 garbihome.com



# IRAZABAL

clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

## Irribarreetan adituak

**Etor zaitez gu ezagutzera**

**Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak**

**JARRAI IEZAGUZU**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**